“Azken arau-aldaketa: 2022/02/10”

# 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onetsi duena (EAO Maiatzaren 24koa)

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusi eta ulertzen duten guztiei.

Jakin ezazue: Gorte Nagusiek lege hau onetsi dute eta nik berretsi egin dut.

## ZIOEN AZALPENA

Ekonomi Itunaren marko juridiko-positiboaren oinarria Konstituzioaren lehen xedapen erantsian dago; honen bitartez Konstituzioak babesa eta begirunea eskaini dizkie foru lurraldeen eskubide historikoei, eta foru araubidea, oro har, aldiro eguneratu dadila agindu du, Konstituzioaren beraren eta Autonomia Estatutuaren esparruan eguneratu ere.

Konstituzioaren agindua betez, eremu horretako abiaburu nagusia ezarri zuen Euskadiko Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsiak. Euskadiko lurralde historikoetako erakunde eskudunek, abiaburu horretatik, bakoitzak bere zerga-sistema ezarri, zaindu eta araupetu ahal dute.

Foru erakundeek zerga gaietan duten ahalmena Euskadiko berezitasunaren osagai material gisa gauzatu ahal dadin, ordea, behar bezala antolatu behar dira Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza eta zerga harremanak. Arestian aipatutako Autonomia Estatutuak helburu horrekin xedatu zuenez, harremanok tradiziozko foru sistemaren bitartez araupetu behar dira, ekonomi itunaren edo hitzarmenen bitartez, hain zuzen ere. Horren ondorioz, jakina, bi administrazioen artean finantza-fluxuak gertatzen dira eta halakoak jaso egin behar dira ekonomi itunean.

Hala, bada, maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lehenengo Ekonomi Ituna onetsi zuen, eta iraunaldi mugatua ezarri zion, bi mila eta batgarren urteko abenduaren hogeita hamaika artekoa, Arabako probintziarekiko Itunari ezarri zitzaion bezala, Arabakoa hartu baitzen oinarri Euskadikoa egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Itun berriak, honako lege honen bidez onetsitakoak alegia, 1981eko Itunaren abiaburu, oinarri eta zuzentarau berberei eutsi die, azken hogei urteotako esperientzia kontuan izanik. Alabaina, sendotu egin dira itunaren aplikazioari begira segurtasun juridikoa areagotzeko bideak eta prozedurak.

Beste alde batetik, Ekonomi Itun berriari izaera mugagabea eman zaio, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren babesean irautea ziurtatuko dion esparru egonkorrean egokitu dadin. Hala ere, zerga-sisteman gerta litezkeen aldakuntzei egokitzeko bideak eman zaizkio.

Hori guztia dela-eta, bi administrazioek, elkar hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lehenengo Ekonomi Ituna onesteko erabili zen prozedura bera erabilita, honako hau ezarri dute, eta Kuporako Batzorde Mistoak behar den erabakia onetsi du 2002ko martxoaren 6an.

### Artikulu bakarra.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onetsi da, Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren berrogeita batgarren artikuluan aipatutako ituna, hain zuzen ere. Itunaren nondik-norakoak lege honen eranskinean daude.

## XEDAPEN GEHIGARRI

**Bakarra.**

Abenduaren 12ko 18/2001 Legeak, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorrak,azken xedapenetatik bosgarrenaren 2. idatz-zatian dioena aldatu egin da eta honela geratu da:

«Lege honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzeak, horren foru araubidea dela- eta, ez dio kalterik egingo Ekonomi Itunari buruzko Legean xedatutakoari.»

## XEDAPEN INDARGABETZAILE

**Bakarra.**

Lege hau indarrean jartzen denean indarrik gabe geratuko dira harekin bat ez datozenxedapenak, haren maila berekoak edo beheragokoak izanez gero.

## AZKEN XEDAPEN

**Bakarra.**

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra, baina ondoreak bi mila eta biko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu.

Beraz, Espainiar guztiei, norbanako nahiz agintari, honako legea betetzeko eta betearazteko agintzen diet.

## ERANSKINA

## EKONOMI ITUNA

### LEHEN KAPITULUA
### TRIBUTUAK

### 1.ATALA
### ARAU OROKORRAK

**1. artikulua. Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak.**

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek lurralde bakoitzeko tributu-araubideari eutsi eta hori ezarri eta arautu ahalko dute.

Bi. Lurralde historikoetako tributu-sistema osatzen duten tributuak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, nori bereak.

Hiru. Lurralde historikoetan tributu itunduak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko eskumena duten erakundeek Estatuko Ogasun Publikoak dituen ahalmen eta eskubide berak izango dituzte.

**2. artikulua. Printzipio orokorrak.**

Bat. Lurralde historikoek ezarriko duten tributu-sistemak printzipio hauek bete beharko ditu:

Lehenengoa. Elkartasunari begirunea zor zaio, Konstituzioan eta AutonomiaEstatutuan zehaztutako moduan.

Bigarrena. Estatuko zergen egitura orokorra izan behar da kontuan.

Hirugarrena. Estatuarekiko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta elkarlana behar dira, ekonomia-itun honetako arauak betez.

Laugarrena. Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta elkarlana behar dira, Eusko Legebiltzarrak helburu horiek betetze aldera emandako arauak betez.

Bostgarrena. Espainiako estatuak izenpetuta eta berretsita dituen edo gerora izenpetuko eta berretsiko dituen nazioarteko tratatu edo hitzarmenen mende egon beharda.

Bereziki, lurralde historikoetako tributu-sistemak bat etorri behar du zergapetze bikoitza ekidite aldera Espainiak sinatuak dituen nazioarteko hitzarmenetan eta Europar Batasunak harmonizazio fiskalari buruz emandako arauetan xedatutakoarekin, eta halako hitzarmen eta arauak aplikatuta burutu beharreko itzulketak bere gain hartu behar ditu.

Bi. Tributuen Lege Orokorrean tributu-arauak interpretatzeko ezarritakoaren bidetik interpretatu behar dira ekonomia-itun honetako arauak.

### 3. artikulua. Harmonizazio fiskala.

Tributu-araudia sortzeko orduan, lurralde historikoek:

a) Tributuen Lege Orokorraren arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak, ekonomia-itun honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.

b) Benetako presio fiskal orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar dute.

c) Espainiako lurralde osoan pertsonen zirkulazio askea eta kokatzeko askatasuna errespetatu eta bermatu behar dira, baita ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio askea ere. Ezin da bazterketarik gertatu; ezin dira enpresen lehiatzeko aukerak murriztu, eta ezin da baliabideen esleipenean distortsiorik eragin.

d) Jardueren sailkapenak direla-eta, abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan, lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dute, nahiz eta sailkapen zehatzagoa ere egin dezaketen, hala nahi izanez gero.

### 4. artikulua. Elkarlanaren printzipioa.

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Administrazioari jakinaraziko dizkiote tributuen arloko arauak egiteko proiektuak, arauok indarrean jarri baino nahikoa denbora lehenago.

Estatuko Administrazioak jakinarazpen berbera egin behar die lurralde historikoetako erakundeoi.

Bi. Nazioarteko akordioek ekonomia-itun hau betetzeko orduan inolako eraginik baldin badute, akordio horietan Euskadiko erakundeen elkarlana ahalbidetzeko behar diren mekanismoak jarriko ditu Estatuak.

Hiru. Estatuak eta lurralde historikoek, tributuak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, tributu horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, behar diren garaian eta eran.

Bereziki, administrazio batak eta besteak:

a) Beharrezkoa duten informazio guztia emango diote elkarri, datuak prozesatzeko zentroen bitartez. Horretarako, behar den komunikazio teknikoa abiaraziko dute.

Urtero, informatika fiskaleko baterako plan koordinatua egingo dute.

b) Ikuskaritza-zerbitzuek zenbait plan egingo dituzte, helburu, arlo eta hautaketa- prozedura koordinatu jakin batzuk batera ikuskatzeko. Gauza bera egingo dute, gainera, egoitza aldatu duten zergadunekin, gardentasun fiskalaren araubidepeko erakundeekin eta sozietateen gaineko zerga eragiketen zenbatekoaren arabera ordaindu behar duten sozietateekin.

Lau. Estatuak eta Euskadiko erakundeek informazioa elkarren artean trukatzeko prozedurak adostuko dituzte, Estatuak sinatuta dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenak eta, berariaz, administrazio-lankidetzari eta elkarren laguntzari buruz Europar Batasunak emandako araudia era egokian beteko direla bermatuta gera dadin.

**5. artikulua. Estatuaren eskumen esklusiboak.**

Honako hauek dira Estatuaren eskumen esklusiboak:

Lehenengoa. Zerga berezien eta balio erantsiaren gaineko zergaren barruan, inportazio-eskubideak eta inportazio-kargak arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea.

Bigarrena. Ekonomia-itun hau betetzen den begiratzea, goi-mailako ikuskapena eginda. Horretarako, eginkizun hori duten Estatuko organoek, urtero, ikuskapen horren emaitzak azaltzeko txosten bat egin behar dute, Eusko Jaurlaritzarekin eta foru-aldundiekin elkarlanean.

## 2. ATALA
## PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

**6. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.**

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari dagokio tributu hori ordainaraztea, baldin eta zergadunaren ohiko bizilekua Euskadin badago.

Bi. Familia-unitate bereko zergadunek ohiko bizilekua lurralde desberdinetan baldin badaukate eta baterako tributazioa egitea erabakitzen badute, likidazio-oinarri handiena duen kidearen ohiko bizilekuko lurraldeko administrazioak izango du eskumena; likidazio-oinarria kasuan kasuko lurraldeko araudia betez kalkulatuko da.

**7. artikulua. Lan-etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.**

Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

c) Administrazio-kontseiluetako, horien ordezko batzordeetako eta beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileek eta kideek zeregin horretatik hartutako ordainsariak, erakunde ordaintzailearen egoitza fiskala Euskadin baldin badago.

Estatuak eta foru-aldundiek eska dezaketen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren erakundeen kasuan, atxikipenak bi administrazioei dagozkie, bakoitzari bere lurraldean burututako eragiketen zenbatekoaren arabera. Horretarako, sozietateen gaineko zergaren azken aitorpen-likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da. Atxikipenok foru- araudiarekin edo araudi erkidearekin bat etorriz eskatuko dira, sozietateen gaineko zergan erakunde ordaintzaileari aplikatu behar zaion foru-araudia edo araudi erkidearen arabera; era berean, irizpide beraren arabera eskumena daukan administrazioko organoek egingo duteikuskapena. Aurrekoa gorabehera, zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu aitorpen-likidazioa aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruzko arauak.

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta erakunde publiko enpresarialetako funtzionarioei eta langileei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetakoei, Estatuan adskribatutako partzuergoetakoei, Estatuko fundazioetakoei, transferitu gabeko unibertsitate publikoetakoei eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintaritzetakoei ere.

### 8. artikulua. Jarduera ekonomikoen etekinak direla-eta egindako konturako ordainketak.

Bat. Jarduera ekonomikoetatik datozen etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, atxikipena egitera edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak ohikobizilekua edo egoitza fiskala Euskadin badu.

Nolanahi ere, Estatuko Administrazioak edo kasuan kasuko foru aldundiak eskatuko dituzte baldin eta beraiek ordaindutako etekinei buruzkoak baldin badira.

Atxikipen eta konturako sarrera horiek ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatutako tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

Bi. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura eginiko ordainketa zatikatuak, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, zergadunak ohiko bizilekua Euskadin badu.

### 9. artikulua. Kapital higigarriaren etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Bat. Kapital higigarriaren etekinak direla-eta egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak Estatuko Administrazioak edo foru-aldundi eskudunak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, arau hauen arabera:

Lehenengoa. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak honako hauekeskatuko ditu:

a) Edozein erakunderen funts propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, baita obligazio eta antzeko tituluetako interesak zein bestelako kontraprestazioak ere, etekin horiek ordaintzen dituzten erakundeek sozietateen gaineko zerga Euskadin bakarrik ordaintzen dutenean.

   Estatuak eta Euskadiko foru-aldundiek eska dezaketen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboen kasuan, atxikipenak bi administrazioei dagozkie, bakoitzari bere lurraldean burututako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Horretarako, sozietateen gaineko zergaren azken aitorpen-likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da. Atxikipenok foru-araudiarekin edo araudi erkidearekin bat etorriz eskatuko dira, sozietateen gaineko zergan erakunde ordaintzaileari aplikatu behar zaion foru-araudia edo araudi erkidearen arabera; era berean, irizpide beraren arabera eskumena daukan administrazioko organoek egingo dute ikuskapena. Aurrekoa gorabehera, zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak ezarriko ditu aitorpen-likidazioa aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruzko arauak.

b) Autonomia Erkidegoak, foru-aldundiek, udalek eta Euskadiko lurralde-administrazioko eta administrazio instituzionaleko beste erakundeek jaulkitako zor eta jesapenetako interes eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere.

   Estatuak eskatuko ditu, ordea, Estatuak berak, beste autonomia-erkidego batzuek, lurralde erkideko korporazioek eta Estatuko lurralde-administrazioetako eta administrazio instituzionaleko bestelako erakundeek egindako jaulkipenei dagozkienak, baita Euskadiko lurraldean ordaintzen badira ere.

c) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta horien pareko erakundeetako eragiketa pasiboetako interesak eta bestelako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu-erakundetan edo finantza-erakundetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren jasotzaileak Euskadin badu ohiko bizilekua edo egoitza fiskala.

d) Kapitalizazio-eragiketetatik eta bizi- edo baliaezintasun-aseguruen kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru-hartzaileak, erreskatearen kasuan, Euskadin badu ohiko bizilekua edo egoitza fiskala.

e) Kapital-ezarpenetik datozen biziarteko errentak eta aldi baterako beste batzuk, onuradunak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala Euskadin baldin badauka.

f) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, subjektu pasiboa egilea ez bada, eta, edozein kasutan, industria-jabetzatik eta laguntza teknikoa ematetik lortutakoak, ordaintzen dituen pertsonak edo erakundeak egoitza fiskala Euskadin baldin badauka.

g) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoen errentamendutik datozenak, Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude.

Bigarrena. Ondasun higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen interesen kasuan, berme modura erabilitako ondasunak dauden lurraldeko administrazioak izango du atxikipena eskatzeko eskumena.

Ondasun hipotekatuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean baldin badaude, bi administrazioei dagokie atxikipena eskatzea. Horretarako, interesak hainbanatu egingo dira hipotekatutako ondasunen balioaren proportzioan, bermea bereziki esleitu ezik; halakoetan, horrela bermatutako kopurua erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

Hirugarrena. Ondasun higigarrien hipoteka bidez edo lekualdaketarik gabeko bahien bidez bermatutako maileguen interesen kasuan, bermea inskribatzen den lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Laugarrena. Mailegu soilen interesen kasuan, salerosketako prezio geroratuarenkasuan eta kapitalak jartzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua dagoen lurraldeko administrazioak edo atxikipena egiteko betebeharra duen erakundeak edo pertsonak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala duen lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Bi. Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatzen diren tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

**10. artikulua. Zenbait ondare-irabazi direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.**

Bat. Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare-irabaziei dagozkien atxikipenak, eta harpidetza-eskubideak eskualdatzen direnean lortzen direnei dagozkienak ere, Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, akziodun edo partaidearen ohiko bizilekua edo egoitza fiskala lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta.

Bi. Loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga bereziaren ondoriozkoatxikipenak eskatuko ditu Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru- aldundiak, zeinek bere araudia betez, jasotzailearen ohiko bizilekua edo egoitza fiskala lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoan aipatu ez diren joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrera−ksariok ondasun, ekoizkin edo zerbitzu jakinen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon zein e−z Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, sarien ordaintzailearen ohiko bizilekua edo egoitza fiskala lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta.

Apartatu honetan aipatutako atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, lurralde erkidean aplikatzen diren tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

**11. artikulua. Konturako beste ordainketa batzuk.**

Bat. Ondasun higiezinen errentamendutik eta azpierrentamendutik lortutako etekinak direla- eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak lurraldea dela-eta eskuduna den foru- aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak Euskadin badu ohiko bizilekua edo egoitza fiskala.

Bi. Erakundeei ordaindutako kopuruak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak, errentak egozteko araubidearen indarrez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zergadunei egotzi behar zaizkienean, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak Euskadin badu ohiko bizilekua edo egoitza fiskala.

**12. artikulua. Konturako ordainketen eraginkortasuna.**

Jasotzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako ordainketek balioko dute. Baina horrek ez du esan nahi, ordainketa horiek eskudun ez den administrazioari eginda ere, beste administrazioak berari dagokion kopurua jasotzeari uko egin behar dionik; azken horrek kopurua emateko eskatu ahal izango dio sarrera jaso duen administrazioari.

**13. artikulua. Errentak egozteko eta eratxikitzeko araubideko erakundeak.**

Bat. Errentak egozteko araubideko erakundeen kasuan, kapitulu honetako 3. ataleko arauak bete beharko dira. Bazkideei egotzitako oinarriak ordainarazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari edo sozietateen gaineko zergari buruzko arauak –ekonomia-itun honetan aipatutakoak– hartuko dira kontuan, bazkide horiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

Bi. Eratxikitako errenten kasuan, araubide horren pean diren erakundeak kudeatzea eta ikuskatzea erakunde horien egoitza fiskala dagoen administrazioari dagokio.

Bazkide, erkide edo partaideei eratxikitako errenta ordainarazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari edo sozietateen gaineko zergari buruzko arauak –ekonomia-itun honetan aipatutakoak– erabiliko dira, beraiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

## 3. ATALA
## SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

### 14. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Bat. Sozietateen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan.

Hala ere, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan eta ekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egin dituzten subjektu pasiboek lurralde erkideko araudia bete beharko dute.

Araudi autonomoa aplikatuko da baldin eta subjektu pasiboek egoitza fiskala lurralde erkidean badute, aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada etaekitaldi horretako eragiketa guztien % 75 edo gehiago Euskadin egin badute. Salbuespenez, subjektu pasiboak talde fiskal baten parte badira, talde fiskal horren egoitza fiskala lurralde erkidean badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada, orduan, araudi autonomoa aplikatuko da eragiketa guzti-guztiak Euskadin egin badira bakarrik.

Bi. Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun- errekargua kenduta, halakorik badago.

Ondasun-ematetzat eta zerbitzu-prestaziotzat joko dira balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, artikulu honetako Bat apartatuan aipatu den eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira.

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke baldin eta, 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, lurralde horretan egiten badira ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak.

Lau. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, ekitaldian egindako eragiketak proportzio berean urteko bihurtuko dira. Harik eta ekitaldi horretako eragiketek zenbat egin duten eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzen dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

### 15. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Bat. Foru-aldundiei dagokie, ez beste inori, egoitza fiskala Euskadin duten subjektu pasiboei sozietateen gaineko zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen zenbatekoa gehienez ere 10 milioi eurokoa bada.

Bi. Aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi euro baino handiagoa denean, subjektu pasiboek, egoitza fiskala edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko diete tributua, ekitaldian lurralde horietariko batean edo bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, hurrengo artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi dezimalekin biribilduta.

### 16. artikulua. Eragiketen lekua.

Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira:

A) Ondasun-emateak:

1.a. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, bidalketa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek salbuespen hauek izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta entregatzea egin behar duenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean emandakotzat hartuko dira, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

b) Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar direnean, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar badira eta instalatu edo muntatzeko kostua ez bada kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa izan.

Era berean, Euskadiko lurraldean instalazioren bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko.

2.a. Energia elektrikoaren ekoizleen emateak, energia hori sortzen duten zentroak Euskadiko lurraldean badaude.

3.a. Ondasun higiezinen emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean badaude.

B) Zerbitzu-prestazioak:

1.a. Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira.

2.a. Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpora daude ondasun higiezinekin zerikusi zuzenaduten prestazioak. Ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira prestazio horiek Euskadin egindakotzat.

3.a. Aseguru-eragiketak eta kapitalizazio-eragiketak, era berean, aurreko apartatuetan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, ekonomia-itun honetako 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa gorabehera, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira, eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak egoitza fiskala Euskadiko lurraldean badauka:

1.a. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiatzaileek edo arrantzontzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiatzaileen edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

2.a. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

3.a. Garraiobideen errentamendua.

D) Artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak administrazio batari edo besteari eratxikiko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berberarekin.

E) Hamalaugarren artikuluko Bi apartatuko bigarren paragrafoan jasotako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek, egoitza fiskala Euskadiko lurraldean badaukate, foru-aldundiei ordainduko dizkiete tributuak.

**17. artikulua. Zergaren konturako ordainketak.**

Bat. Sozietateen gaineko zerga dela-eta egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak administrazio batari edo besteari egingo zaizkio, itun honetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruz ezarritako irizpideen arabera. Gainera, 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio batari edo besteari kontura egindako ordainketen eraginkortasunari dagokionez.

Bi. Zerga bi administrazioei ordaindu behar dieten subjektu pasiboek lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera egingo dituzte zergaren ordainketa zatikatuak. Horretarako, zergaren azken aitorpen-likidazioan adierazitako proportzio bera erabiliko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, beste proportzio bat aplikatu ahal izango da, ekonomia-itun honen III. kapituluko 2. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea jakitun jarri ondoren, eragiketa hauek egiten direnean:

a) Bat-egitea, zatitzea, aktiboen ekarpena eta balore-trukea.

b) Lurralde erkidean edo foru-lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta apartatu honetako lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatutako proportzioa nabarmen aldarazten bada.

Aldakuntza nabarmena dela ulertuko da lurraldeetariko edozeini aplikatu beharreko proportzioak portzentajezko 15 puntu gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

Hiru. Administrazio bakoitzari benetan egindako ordainketa zatikatua administrazio horri dagokion kuota-zatitik kenduko da.

**18. artikulua. Zergaren kudeaketa, zerga bi administrazioei ordaintzen zaien kasuan.**

Zerga bi administrazioei ordaintzen zaien kasuan, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehenengoa. Zerga likidatuta lortutako emaitza Estatuko eta Euskadiko administrazioei egotziko zaie, zergaldi bakoitzean lurralde batean eta bestean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Bigarrena. Zerga bi administrazioetan ordaindu behar duten subjektu pasiboek behar diren aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dizkiete administrazio biei, arauetan agindutako epeak eta formalitateak errespetatuta. Aitorpen-likidazio horietan, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko proportzioa eta dagozkion kuotak eta itzulketak zein diren zehaztu beharko da beti.

Hirugarrena. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokionaren arabera.

**19. artikulua. Zergaren ikuskapena.**

Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu egoitza fiskala, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldea dela- eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretaneragiketa guztien % 75 edo Euskadin egin bada.

Bi. Ikuskapen-jarduketetan, administrazio eskudunaren araudia bete beharko da, aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera, gainerako administrazioen elkarlana eragotzi gabe.

Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiekegin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada.

Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketen emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hiru. Aurreko apartatuan xedatutakoa ulertu behar da foru-aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak eragotzi gabe. Baina foru-aldundien jarduketa horiek ez dute inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan, administrazio-organo eskudunen jarduketen ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta.

Lau. Egiaztapenetan administrazio eskudunak ezartzen dituzten proportzioek ondorioak izango dituzte subjektu pasiboarekiko, likidatutako betebeharrei dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

Bost. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu ahalko dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-zenbatekoaren kalkuluari eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari.

**20. artikulua. Ekonomia-intereseko taldeak, aldi baterako enpresa-elkarteak eta talde fiskalak.**

Bat. Euskadik ezarriko du ekonomia-intereseko taldeen eta aldi baterako enpresa-elkarteen tributu-araubidea, halakoak osatzen dituzten erakunde guztiak foru-araudiaren mende dauden kasuetan.

Erakundeok bazkideei egotziko diete lurralde batean zein bestean egindako eragiketetan dagokien zatia, eta bazkideek kontuan hartuko dute egotzi zaien zati hori euren eragiketen proportzioa zehazterakoan.

Bi.

1. Talde fiskalak kontsolidazio fiskalaren foru-araubidearen mende egongo dira baldin eta talde fiskala osatzen duten erakunde guztiak banakako tributazioaren araubideko foru-araudiaren mendean badaude, eta lurralde erkideko kontsolidazio fiskalaren araubidearen mende egongo dira, aldiz, talde fiskala osatzen duten erakunde guztiak banakako tributazioaren araubideko lurralde erkideko araudiaren mendean badaude.

   Hori dela eta, talde fiskaletik kanpo geratuko dira beste araudiaren mende dauden erakundeak, halakorik badago.

   Artikulu honetan ezarritako arauei jarraituz aplikatu behar den araudia zein den, horren tributu-administrazioak izango du talde fiskalak ikuskatzeko eskumena.

Estatuaren unean uneko araudia bera erabiliko da beti talde fiskala, erakunde nagusia, mendeko erakundeak, erakunde ordezkaria, mendekotasun-maila eta taldearen barne-eragiketak definitzeko.

2. Arau hauek erabiliko dira talde fiskalen kontsolidazio fiskalaren araubidea aplikatzeko:

   Lehenengo. Taldea osatzen duten erakundeek, itun honetan aipatutako arau orokorrak betez, banakako tributazioaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, talde fiskalaren erakunde ordezkariak talde fiskalaren kontabilitate-orri bateratuak aurkeztuko dizkio administrazio bakoitzari.

   Bigarren. Talde fiskalak lurraldeetako bakoitzean eginak dituen eragiketen zenbatekoaren heinean ordainduko dio beti zerga administrazioetako bakoitzari.

   Hori dela eta, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, talde fiskaleko erakunde bakoitzak lurralde horretan egindako eragiketak batu egingo dira, talde barruko bidezko kenketak egin aurretik.

3. Aurreko 7. artikuluko Bat apartatuko c) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren kasuetan, 9. artikuluko Bat apartatuko a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen direnetan, eta 23. artikuluko Bi apartatuko bigarren paragrafokoetan, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-zenbatekoaren proportzioa kalkulatzeko, aurreko apartatuko bigarren arauan definitu den taldearen eragiketa-zenbatekoa aplikatuko da beti.

## 4. ATALA
## EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

### 21. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Bat. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Hala ere, atzerriko egoiliarrak diren pertsona edo erakundeenak izan eta Euskadin egoitza duten establezimendu iraunkorrei zerga honen araudi autonomoa aplikatuko zaie, 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela-eta, zergadunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzea aukeratzen badu, aukerako araubidea aplikatzeko orduan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru- aldundiaren araudia hartuko da kontuan, baldin eta zergadunak Euskadiko lurraldean lortzen duen errentak Espainian lortzen duen errenta osoaren zatirik handiena egiten badu. Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, foru-aldundiek egingo diote itzulketa, errentak Espainiako zein lekutan lortu dituen kontuan hartu gabe.

Bi. Pertsona fisiko edo erakunde batek establezimendu iraunkorraren bidez diharduela ulertuko da baldin eta, edozein titulu dela bide, edozein motatako instalazio edo lantokiren bat badu, ohikoa edo iraunkorra, eta bere jarduera bertan egiten badu osorik nahiz zati batean; edo bestela, bertan subjektu pasibo ez-egoiliar horren izenean eta kontura agenteren batek badihardu kontratuak egiteko eskuespenaren bidez, eta agente horrek ahalorde horiek erabili ohi dituenean.

Establezimendu iraunkortzat joko dira, bereziki, zuzendaritzen egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, lantegiak, biltegiak, dendak eta bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio- eta gas-hobiak, harrobiak, nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzako ustiategiak eta baliabide naturalak aurkitu edo erauzteko beste edozein gune, eta sei hilabete baino gehiago dirauten eraikuntza-, instalazio- edo muntatze-obrak.

**22. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Bat. Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, administrazioetako batek ordainaraziko du zerga, edo bestela biek batera, 15. artikuluan adierazitako eran.

Bi. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak kargatzen direnean, lurraldea dela- eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga, errentak Euskadin lortuak edo sortuak badira, hau da, ondoko baldintzak betetzen badira:

a) Ustiapen ekonomikoen etekinak, Euskadiko lurraldean egiten badira jarduerak.

b) Azterlan, egitasmo, laguntza tekniko, kudeaketarako laguntza, zerbitzu profesional eta antzeko beste zerbitzu-prestazio batzuetatik lortutako etekinak, zerbitzu horien prestazioa Euskadiko lurraldean egin edo erabiltzen bada. Euskadiko lurraldean erabilitako zerbitzutzat hauek ulertuko dira: Euskadiko lurraldean gauzatzen diren enpresa-jardueretan edo jarduera profesionaletan erabilitakoak edo lurralde horretan kokatutako ondasunekin burututakoak.

   Zerbitzu hori ez baldin bada burutzen den tokian bertan erabiltzen, non erabiltzen den hartuko da kontuan.

c) Lanetik, zuzenean edo zeharka, datozen etekinak:

   a') Euskadin garatutako jarduera pertsonal baten ondorio badira.

   b') Pentsioak eta tankerako gainerako prestazioak, Euskadiko lurraldean egindako enplegu baten ondorio badira.

   c') Era guztietako erakundeetako administrazio-kontseiluetako, ordezko batzordeetako edo beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaileek eta kideek zeregin horretatik hartutako ordainsariak, artikulu honen Lau apartatuan ezarritakoaren arabera.

d) Artistek edo kirolariek Euskadiko lurraldean egindako jarduketa pertsonaletatik edo jarduketa horiekin zerikusia duen beste edozein jardueratatik zuzenean edo zeharka ateratako etekinak, baita etekin horiek artistak edo kirolariak berak ez beste pertsona edo erakunderen batek hartzen baditu ere.

e) Euskal erakunde publikoetako funts propioetako partaidetzatik lortutako dibidenduak zein bestelako etekinak, baita erakunde pribatuetako funts propioetako partaidetzatik lortutakoak ere, artikulu honetako Lau apartatuan zehaztutako kopuruen barruan.

f) Interes, kanon eta kapital higigarriaren bestelako etekinak:

   a') Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindutakoak, baita erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutakoak ere, artikulu honetako Lau apartatuan zehaztutako kopuruen barruan.

   b') Euskadiko lurraldean erabilitako kapital-prestazioak ordaintzekoak direnean.

   Irizpide horiek ez baldin badatoz bat, ordaindutako prestazioko kapitala non erabili den hartuko da kontuan.

g) Euskadiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo ondasun horiekin zerikusia duten eskubideetatik zuzenean nahiz zeharka lortutako etekinak.

h) Euskadiko lurraldean kokatutako hiri-ondasun higiezinen titularrak diren pertsona fisiko zergadunei egozten zaizkien errentak.

i) Euskadiko erakunde edo pertsona publikoek jaulkitako baloreetatik lortutako ondare-irabaziak, baita erakunde pribatuek jaulkitako baloreetatik lortutakoak ere, artikulu honetako Lau apartatuan zehaztutako kopuruen barruan.

j) Euskadiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik, edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideetatik lortutako ondare-irabaziak.

Bereziki, honako hauek letra honetan sartuta daudela ulertuko da:

a') Erakunde egoiliar edo ez-egoiliar bateko eskubide edo partaidetzen ondoriozko ondare-irabaziak, baldin eta erakunde horren aktiboa Euskadiko lurraldean kokatutako ondasun higiezinez osatuta badago batez ere.

b') Erakunde egoiliar edo ez-egoiliar bateko eskubide edo partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko ondare-irabaziak, baldin eta eskubide edo partaidetza horiek Euskadiko lurraldean kokatutako ondasun higiezinez gozatzeko eskubidea ematen badiote titularrari.

k) Euskadiko lurraldean kokatutako beste ondasun higigarri batzuen ondorioz, edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideen ondorioz, lortutako ondare-irabaziak.

Hiru. Aurreko apartatuan zehaztutako irizpide horien arabera errentaren bat bi lurraldeetan aldi berean lortu dela uler badaiteke, lurralde historikoei egokituko zaie horien ordainarazpena, ordaintzailea pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu; pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, aldiz, artikulu honetako Lau apartatuan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Lau. Aurreko Bi apartatuko c) letraren c’) letran eta e), f) eta i) letretan jasotako kasuetan eta Hiru apartatuan jasotako kasuan, erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errenten kopuru hauek hartuko dira Euskadiko lurraldean lortu edo sortutakotzat:

a) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek zergak Euskadin bakarrik ordaintzen badituzte, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

b) Erakunde edo establezimendu iraunkor horiek zergak bi administrazioetan ordaintzen badituzte, Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaintzen duten errenten zatia.

Hala ere, letra honetan jasotako kasuetan, ekonomia-itun honen arabera likidazioa ez-egoiliarra ordezkatuz aurkezten duen pertsona, erakundea edo establezimendu iraunkorra ikuskatzeko eskumena duen lurraldeko administrazioak izango du etekin guztiak ordainarazteko eskumena, nahiz eta gero, hala badagokio, beste administrazioari konpentsazioa eman behar izan, beste administrazio horren lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Era berean, ekonomia-itun honen arabera likidazioa ez-egoiliarra ordezkatuz aurkezten duen pertsona nahiz erakunde edo establezimendu iraunkorra ikuskatzeko eskumena duenlurraldeko administrazioak ordainduko dizkie ez-egoiliarrei ordaindu beharreko itzulketak, nahiz eta gero, hala badagokio, beste administrazioari konpentsazioa egin behar izan, erakunde ordaintzaileak beste administrazio horren lurraldean egindako eragiketen zenbatekoari dagokion heinean.

Bost. Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia, ondasun higiezina Euskadiko lurraldean badago, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari ordaindu behar zaio.

Sei.Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei eska dakiekeen loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiari ordainduko zaio, saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua zein lurraldetan erosi den (Euskadin edo lurralde erkidean), horren arabera.

**23. artikulua. Konturako ordainketak.**

Bat. Establezimendu iraunkorrek egindako ordainketa zatikatuak eta lortu dituzten errenten gainean jasandako zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak goiko 2. eta 3. ataletan ezarritako arauei jarraituz eskatuko dira.

Bi. Establezimendu iraunkorrik gabe dihارduten zergadunen errentei dagozkien atxikipenaketa konturako sarrerak, berriz, errentak zein lurraldetan lortu diren, hango administrazioakeskatuko ditu, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Ikuskapena ere eskumena daukan administrazioko organoek egingo dute, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoak xedatutakoa gorabehera, aurreko artikuluko Bi apartatuko e), f) eta i) letretan jasotako kasuetan eta artikulu bereko Hiru apartatuan jasotako kasuan, foru-aldundiek eskatuko dituzte, atxikipena egitera behartuta dagoenak Euskadin egindako eragiketen zenbatekoaren arabera, aurreko 3. atalean ezarritako arauak erabiliz.

Hiru. Gainera, 12. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio batari edo besteari kontura egindako ordainketen eraginkortasunari dagokionez.

Lau. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei eska dakiekeen loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga bereziari dagozkion atxikipenak Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua zein lurraldetan erosi den (Euskadin edo lurralde erkidean), horren arabera.

**23. bis artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena, establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean.**

Bat. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, zerga bi administrazioei ordaintzen zaien kasuetan, 18. artikuluan zerga kudeatzeko aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

Bi. Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, zergaren ikuskapena administrazio eskudunak egingo du 19. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatuz.

## 4. BIS ATALA
## KREDITU-ERAKUNDEEN GORDAILUEN GAINEKO ZERGA.

**23 ter artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.**

Bat. Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga honen karga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epehoriek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egin beharko du zergaren ordainarazpena, hirugarrenen funtsak dauden egoitza nagusia, sukurtsalak edo bulegoak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Hala ere, merkaturatze-sistema ez-presentzialen bidez jasotako funtsen ondoriozko zerga-ordainarazpena, bai eta lurralde bati atxikitzeko modukoak ez direnen gainekoa ere, Euskadiko lurralde historikoei egotziko zaie, lurraldeari atxikitako gordailuetan duten partaidetzaren arabera.

Hiru. Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, aurreko apartatuan xedatutako irizpidearen arabera.

## 4. TER ATALA
## ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPEN-BALIOAREN GAINEKO ZERGA.

### 23 quáter artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Energia elektrikoaren ekoizpen-balioaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egin beharko du zergaren ordainarazpena, energia elektrikoa ekoizteko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Hiru. Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, Bi apartatuan xedatutako irizpidearen arabera.

Lau. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

## 4. QUATER ATALA
## ENERGIA NUKLEOELEKTRIKOA SORTZETIK DERIBATUTAKO ERREGAI NUKLEAR AGORTUA ETA HONDAKIN ERRADIOAKTIBOAK EKOIZTEAREN GAINEKO ZERGA ETA ERREGAI NUKLEAR AGORTUA ETA HONDAKIN ERRADIOAKTIBOAK INSTALAZIO ZENTRALIZATUETAN BILTEGIRATZEAREN GAINEKO ZERGA

### 23 quinquies artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergen ordainarazpena.

Bat. Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zerga eta erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko zerga tributu itunduak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira haiek arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gaineko zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak ekoizteko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Hiru. Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo eskuduna den foru-aldundiak egingo du, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak biltegiratzeko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Lau. Zerga hauen konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, Bi eta Hiru apartatuetan xedatutako irizpideen arabera.

## 4. QUINQUIES ATALA
## GASAREN, PETROLIOAREN ETA KONDENTSATUEN ERAUZTE-BALIOAREN GAINEKO ZERGA

### 23 sexies artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.

Bat.Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du, maiatzaren 21eko 8/2015 Legearen 22. artikuluak aipatzen duen hidrokarburo-hobien ustiapen-emakidaren erreferentziako perimetroaren barruko eremua lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta (8/2015 Legea, maiatzaren 21ekoa, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautzen dituena).

Aurreko paragrafoan adierazitako perimetroaren barruko eremua lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean baldin badago, zergaren ordainarazpena bi administrazioen artean egingoda, modu proportzionalean.

Hiru. Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu, Bi apartatuan xedatutako irizpidearen arabera.

Lau. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

## 5. ATALA
## ONDAREAREN GAINEKO ZERGA

### 24. artikulua. Aplikatu beharreko arauak eta zergaren ordainarazpena.

Ondarearen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa.

Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak edo Estatuak eskatuko du, zergaduna pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga bidez administrazio baten edo bestearen mende dagoen kontuan hartuta, eta tributupeko ondare-elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe.

Zerga ordaintzeko betebehar erreala duten subjektu pasiboen kasuan, ondasunen eta eskubideen baliorik handiena Euskadiko lurraldean baldin badago, foru-aldundiei egokituko zaie zerga ordainaraztea. Horretarako, Euskadiko lurraldean kokatuta daudela ulertuko da, lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak.

Azken egoitza Euskadin izan duten ez-egoiliarrek ondarearen gaineko zerga betebehar pertsonalaren arabera ordaintzea aukeratzen dutenean, lurralde erkidean edo foru-lurraldean ordaindu ahal izango dute eta aukeratzen duten lurraldeko araudia bete beharko dute.

## 6. ATALA
## OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

### 25. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa.

Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskurapenetan, eta bizi-aseguruen onuradunek aseguratuaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapen-egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago. Kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, zergadunek bizilekua Euskadin badute.

b) Ondasun higiezinen eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean.

   Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondasun higiezinen dohaintzatzat hartuko dira Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onetsi duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 314. artikuluan aipatutako baloreen doako eskualdatzeak.

c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badu sortzapenaren egunean.

d) Zergadunak bizilekua atzerrian duenean, baldin eta ondasunen eta eskubideen baliorik handiena Euskadiko lurraldean baldin badago, eta bizi-aseguruetako kontratuetatik lortutako kopuruen kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru-erakundeekin egin bada, edo kontratua Euskadin egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin.

   Letra honen ondorioetarako, Euskadiko lurraldean kokatuta daudela ulertuko da lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak.

Bi. Aurreko apartatuko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzailea edo dohaintza-hartzailea egunik gehien egon bada lurralde erkidean aurre-aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Autonomia Estatutuaren 7.2. artikuluaren arabera izaera politikoz euskal herritar izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko.

Hiru. Agiri baten bidez dohaintza-emaile bakar batek dohaintza-hartzaile bati ondasunak edo eskubideak dohaintzan ematen badizkio eta, Bat apartatuko irizpideak aplikatuz, etekina lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean sortutakoa dela ulertzen bada, honela kalkulatuko dalurralde bakoitzari dagokion kuota: eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioari legokiokeen batez besteko tasa, bakoitzaren arauen araberakoa, lurralde bakoitzari egotzitako dohaintzen balioari aplikatuta.

Lau. Dohaintzak metatu behar diren kasuetan, Euskadiri zein kuota dagokion jakiteko, dohaintzan emandako ondasun eta eskubide metatu guztien balioari legokiokeen batez bestekotasa, bere arauen araberakoa, aplikatu behar zaio gaur egun eskualdatu diren ondasun eta eskubideen balioari.

Ondorio horietarako, aurreko dohaintzetatik datozenak eta gaur egungo eskualdaketatik datozenak izango dira ondasun eta eskubide metatu guztiak.

## 7. ATALA
## BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

### 26. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Balio erantsiaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu

horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

**27. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehenengoa. Euskadiko lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga osoa dagokien foru-aldundian ordaindu behar dute; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dute.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zerga bi administrazioetan ordaindu behar dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotuneak erabili beharko dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 10 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ezduten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zerga Estatuko Administrazioan ordainduko dute, egoitza fiskala lurralde erkidean baldin badaukate; eta egoitza fiskala Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru-aldundian.

Bi. Eragiketen zenbatekotzat honako hau joko da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da jarduketak proportzio berean urteko bihurtzeko.

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela uler daiteke baldin eta 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egitenbaditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak.

Lau. Europar Batasunaren barruko ondasunen trafikoko eragiketen gaineko zerga aurrekoBat apartatuan azaldutako eran ordainaraziko da, artikulu honetako hurrengo apartatuetanaipatuko diren kasuetan izan ezik.

Bost. Europar Batasunaren barruko garraiobide berrien eskurapenen gaineko zerga garraiobideak behin betiko matrikulatzen diren lurralde erkideko administrazioak edo Euskadiko administrazioak ordainaraziko du, baldin eta partikularren eskurapenak badira edo balio erantsiaren gaineko zerga zergatik erabat salbuetsita dauden edo zerga horren pean ez dauden eragiketak dituzten pertsona edo erakundeen eskurapenak badira.

Sei. Jarraian azalduko diren eragiketak egiten direnean, Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zerga, subjektu pasiboaren egoitza dagoen lurraldearen arabera:

a) Europar Batasunaren barruko ondasunen eskurapenak, baldin eta eskurapenak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo zergaren araudian ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta horiek egiten dituztenak zergaren kenkari osorako edo partzialerako eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak badira, edo enpresari nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoakbadira.

b) Europar Batasunaren barruko ondasunen eskurapenak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun-errekarguaren araubidean egiten badira.

Zazpi. Enpresaburuek edo profesionalek (erkidegoan, eta ez kontsumoko estatu kidean) enpresaburu edo profesional ez diren hartzaileei emandako zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziari dagokion zerga ordainaraztea — erkidego barruko ondasunen urruneko salmentei eta interfaze digital baten bidez emandako ondasunen barne emate jakin batzuei, eta hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplika dakiekeen araubide bereziari, helmugako zerga ordainketa dute ezaugarri, eta leihatila bakarraren bidez gauzatzen dira (Espainia identifikazioko estatu kidea denean) — honako honi dagokio: Estatuko Administrazioari edo zerga aplikatzen den lurraldean ezarritako enpresaburuen edo profesionalen gaineko ikuskapen eskumena duen Foru Aldundiari(29. artikuluaren seigarren apartatuan ezarritako arauekin bat eginda).

Nolanahi ere, hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplikatu beharreko araubide berezian bitartekaria izendatu denean, zerga ordainarazteko ardura izango du izendatutako bitartekarien gaineko ikuskapen eskumena duen Estatuko Administrazioak edo Foru Aldundiak (29. artikuluaren seigarren apartatuan ezarritako arauekin bat eginda).

## 28. artikulua. Eragiketen lekua.

Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, zergaren mendeko eragiketen artetik honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

1.a. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, bidalketa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek salbuespen hauekizango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta entregatzea egin behar duenak berak eraldatu baditu, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

b) Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar direnean, emate horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar badira eta instalatu edo muntatzeko kostua ez bada kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa izan.

Aldiz, elementu industrialen emateak direla-eta Euskadiko lurraldean instalazioren bat egin behar denean, gertatu eta fabrikatzeko lanak lurralde erkidean egiten badituzte eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, emate horiek ez dira Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko.

c) Europar Batasuneko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta balio erantsiaren gaineko zergaren araudian ezarritako baldintzak betetzen badira urrutiko salmenten araubidea aplikatzeko,ondasun-ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

2.a. Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak Euskadiko lurraldean badaude.

3.a. Ondasun higiezinen emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean badaude.

B) Zerbitzu-prestazioak:

1.a. Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, lurralde horretatik ematen badira.

2.a. Aurreko apartatuan xedatutakotik kanpora daude ondasun higiezinekin zerikusizuzena duten prestazioak. Ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude hartuko dira prestazio horiek Euskadin egindakotzat.

3.a. Aseguru-eragiketak eta kapitalizazio-eragiketak, era berean, aurreko apartatuetan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, ekonomia-itun honetako 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira.

C) Aurreko letretan xedatutakoa gorabehera, honako eragiketa hauetan zerga ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioak edo foru-aldundi eskudunak izango du, subjektu pasiboaren egoitza fiskala lurralde erkidean edo Euskadin dagoen kontuan hartuta:

1.a. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiatzaileek edo arrantzontzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiatzaileen edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

2.a. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

3.a. Garraiobideen errentamendua.

Bi. Artikulu honetan aipatutako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek foru-aldundiei ordainduko dizkiete tributuak, egoitza fiskala Euskadiko lurraldean badute.

**29. artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.**

Bat. Zergaren likidazioen emaitza administrazio eskudunei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Kontraprestazio horiek kargapeko ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioei dagozkie, baita salbuetsiei ere kenkarirako eskubidea badakarte.

Bi. Egutegiko urte bakoitzean behin-behingoz aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira. Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio- aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatuko du,beraren ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da.

Aurreko paragrafoan agindutakoa eragotzi gabe, honako kasu hauetan beste proportzio bat aplika daiteke, betiere ekonomia-itun honetako III. kapituluko 2. atalean aipatutako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazi ondoren:

a) Bat-egitea, zatitzea eta aktiboen ekarpena.

b) Lurralde erkidean edo foru-lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta apartatu honetako lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatutako proportzioa nabarmen aldarazten bada.

Aldakuntza nabarmena dela ulertuko da lurraldeetako edozeini aplikatu beharreko proportzioak portzentajezko 15 puntu gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

Hiru. Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean zergaren azken aitorpen-likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu –epe horretan egindako eragiketen arabera–, eta

aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako aitorpenak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan.

Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Bost. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

a) Zerga foru-aldundietan edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan, baina bietako batean bakarrik ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko tributu-ikuskaritzen lana izango da.

b) Zerga lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordaindu behar duten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

   Lehenengoa. Egoitza fiskala lurralde erkidean daukaten subjektu pasiboak: Estatuko Administrazioko organoek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa. Organo horiek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan duen tributu-egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio batari eta besteari dagokion tributazio-proportzioa barne.

   Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago Euskadiko lurraldean egina badu –edo % 100, erakunde-talderako araubide berezian sartzen direnerakundeen kasuan–, zehaztutako lotuneen arabera, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo ditu egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe.

   Bigarrena. Egoitza fiskala Euskadiko lurraldean daukaten subjektu pasiboak: egoitza fiskalari dagokion foru-administrazioko organo eskudunek egingo dituzte egiaztapena eta ikerketa, Estatuko Administrazioarekiko elkarlana eragotzi gabe. Ondorioak administrazio eskudun guztietan izango ditu, administrazio horiei dagokien tributazio-proportzioa barne.

   Subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina badu, zehaztutako lotuneen arabera, eskumena Estatuko Administrazioarena izango da, foru-aldundiekiko elkarlana eragotzi gabe.

   Jarduketa horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-jarduketa horiek egin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada. Administrazio eskudunaren organo ikuskatzaileek euren jarduketen emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

   Hirugarrena. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, foru-aldundiek –zeinek bere lurralde barruan– egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien ahalmenak izango dituzte. Baina foru-aldundien jarduketek ezin dute zergadunen artean inongo ondorio ekonomikorik izan, administrazio eskudunetako organoen jarduketen ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan.

   Laugarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

Bostgarrena. Ikuskapen-eskumena ez duten tributu-administrazioek egiaztatu ahalko dituzte eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-zenbatekoaren kalkuluari eragin diezaioketen eragiketa guztiak, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, egindako jarduketa guztiak tributu-administrazio eskudunari jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko zergadunari.

Zazpi. Erakunde-taldearen araubide berezian sartzen diren erakundeek 7. atal honetan jasota dauden arauak aplikatuta ordainduko dute zerga, berezitasun hauek aintzat izanik:

Lehenengoa. Erakunde-taldetik kanpokotzat joko dira mendeko erakundeak baldin eta haien ikuskapena egiteko ardura duten organoak, aurreko Sei apartatuan jasota dauden arauei jarraituz, erakunde nagusiari aplikatu beharreko administraziokoak ez beste administrazio batekoak badira, foru-administrazioa nahiz administrazio erkidea izan.

Bigarrena. Erakunde-taldea osatzen duten erakundeek, itun honetan aipatutako arau orokorrak betez, banakako tributazioaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute. Zergaren arauak, eta, hala dagokionean, erakunde-taldearen araubide bereziko arauak ere bai, banaka aplikatutakoan, hortik sortzen diren zenbatekoak zehaztuko dira aitorpen horretan.

Taldea osatzen duten erakundeetako bakoitzak banaka kalkulatuko du administrazioetako bakoitzari egotz dakiokeen aitorpenaren emaitza, horretarako 7. atal honetan ezarritako gainerako arauak erabilita.

Hirugarrena. Erakunde-taldeak bat eginda aurkeztutako aitorpen-likidazioetan kontuan hartu behar diren zenbatekoak, aurreko arau horri jarraituz kalkulatuta, foru- aldundietako bakoitzari edo Estatuko Administrazioari dagozkion emaitzen batuketatik sortuko dira, baina ezin izango dira aldi berean tributu-administrazio bati baino gehiagori dagozkion zenbatekoak batu.

Laugarrena. Taldea osatzen duten erakundeek zein lurraldetan jarduten duten, lurralde horretako tributu-administrazioan bete beharko dituzte erakunde nagusiek beren berariazko betebeharrak.

Bostgarrena. Erakunde-taldearen araubide bereziak ez ditu inola ere aldatuko itun honetan zehaztutako arauak, ez eta, bereziki, lurraldeetako bakoitzean izaten diren eragiketen zenbatekoa finkatzeko erabili beharreko arauak ere.

Zortzi. Europar Batasunaren barruko emate eta eskurapenak laburbiltzeko aitorpenak, subjektu pasiboari egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan tributu- administrazioan aurkeztu beharko dira.

Bederatzi. Artikulu honetako aurreko apartatuetan agindutakoa gorabehera, baldin eta beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egin ohi diren unearen aurreko likidazio-aldietan zergadunak tributu-administrazio baten ordainarazpen-eskumenaren mendean egon badira eta beste administrazio baten mendean ondoko likidazio-aldietan, edo baldin eta likidazio-aldi horietan zergaren ordainketaren proportzioa nabarmen aldatu bada administrazio bati edo besteari –erkidea edo forala– ordaintzean, itzulitako kuoten erregularizazioa egingo da, apartatu honetan agindutako eran.

Aurreko paragrafoak hizpide dituen zergadunek beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak normaltasunez egiten hasi aurreko likidazio-aldiei dagozkien tributazio-proportzioak erregularizatu beharko dituzte administrazio bakoitzari begira, beren jarduerari dagozkion ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio horiek egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagozkion tributazio-ehunekoen arabera administrazio bakoitzari begira.

Horretarako, aitorpen espezifiko bat aurkeztu beharko dute subjektu pasiboek erregularizazioak ukitzen dituen administrazio guztien aurrean, beren jarduerari dagozkion ondasun-emate edo

zerbitzu-prestazio horiek egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoaren azken aitorpen-likidazioa aurkezteko dagoen epe berean.

Honela, administrazioek beren gain hartu beharko dituzte haien jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egiten hasi aurreko likidazio-aldiei dagozkien kuoten itzulketak, bigarren paragrafoan ezarritako proportzioaren arabera; horren ondorioz, beharrezkoak diren zenbatekoak konpentsatuko dizkiote administrazio batak besteari, baina erregularizazio horrek ez du inola ondorio ekonomikorik izango zergadunentzat.

Ondorio horietarako, apartatu honen lehenengo paragrafoak hizpide dituen likidazio-aldietan tributuen ordainketaren proportzioa administrazio batetik bestera –erkidea edo forala–nabarmen aldatu dela ulertuko da baldin eta administrazioetariko bati dagokion proportzioak portzentajezko 40 puntu gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

Hamar. Zerga ordainaraztea Foru Aldundiei dagokienean, araudia berezietan eta 27. artikuluaren zazpigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, apartatu horrek aipatzen dituen eta erregimen berezian dauden enpresaburuek edo profesionalek dagokion Foru Aldundiaren aurrean horietatik eratorritako betebehar formalak eta materialak beteko dituzte, administrazioen artean dagozkion informazio fluxuak edo funtsak egon arren.

## 8. ATALA
## ONDARE-ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

### 30. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga tributu itundu bat da, araudi autonomokoa, sozietate-eragiketetan, kanbio-letretan eta ordezko balioa edo igorpen-zeregina duten agirietan izan ezik; halakoetan arau erkideak beteko dira, eta lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute, baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

### 31. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordainaraztea tokian tokiko foru-aldundiari dagokio honako kasu hauetan:

1. Ondasun higiezinak kostu bidez eskualdatzen direnean eta haien errentamenduetan, eta ondasun horien gaineko eskubide errealak –baita bermekoak ere– kostu bidez eratzean edo lagatzean, ondasunok Euskadiko lurraldean kokatuta badaude.

   Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 314. artikuluan jasotako kasuetan, baloreak eskualdatzen dituen erakundearen aktiboko ondasun higiezinak Euskadiko lurraldean badaude.

2. Ondasun higigarriak, aziendak eta kredituak kostu bidez eskualdatzean eta horien gaineko eskubideak kostu bidez eratzean eta lagatzean, baldin eta eskuratzailea pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu; edo, pertsona juridikoa bada eta Euskadin badu egoitza fiskala.

   Aurrekoa hala bada ere, honako bi salbuespen hauek jarri dira:

   a) Akzioak, harpidetza-eskubideak, obligazioak, antzeko tituluak eta gainerako baloreak zein sozietate-partaidetzak eskualdatzen direnean, eragiketa zein tokitan formalizatu den hartuko da kontuan.

b) Ondasun higigarrien gaineko hipoteka edo lekualdaketarik gabeko bahia eratzean edo ontzi handi, itsasontzi txiki edo aireontzien gainekoen kasuetan, egintza horiek zein lurraldetan inskribatu behar diren hartuko da kontuan.

3. Mailegu soilak, fidantzak, ondasun higiezinez bestelakoen errentamenduak eta pentsioak eratzen direnean, baldin eta mailegu-hartzailea, fidantza-hartzailea, errentaria edo pentsioduna pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu; edo pertsona juridikoa bada eta egoitza fiskala Euskadin badu.

   Berme errealeko maileguak direnean, berriz, ondasun higiezin hipotekadunak Euskadiko lurraldean badaude, edo lurralde horretan inskribatu badaitezke ondasun higigarrien hipotekak edo lekualdaketarik gabeko bahiak.

   Mailegu bat lurralde erkidean eta foru-lurraldean kokatutako hainbat ondasun higiezinen gaineko hipotekarekin bermatuta badago, edo lurralde bietan inskribatu daitekeen ondasun higigarrien hipotekarekin nahiz lekualdaketarik gabeko bahiarekin bermatuta badago, batzuei eta besteei egozten zaien erantzukizunaren arabera ordainduko zaio zerga administrazio bakoitzari, eta, zehaztapen hori eskrituran beren-beregi jasorik ez badago, ondasunen balio egiaztatuen arabera.

4. Ondasunen administrazio-emakidetan, ondasun horiek Euskadin kokatuta baldin badaude; eta obrak egin edo zerbitzuak ustiatu behar direnetan, baldin eta Euskadin egiten edo eskaintzen badira. Arau horiek beroriek aplikatuko dira administrazio-emakidekin berdinesten direlako zergapean dauden administrazio-egintza eta -negozioetan ere.

   Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten ondasunak ustiatzeko emakidak direnean, Euskadiko lurraldean okupatzen duten azaleraren arabera eskatuko da zerga.

   Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten obrak egiteko emakidak direnean, Euskadiko lurraldean egingo diren obren zenbatekoa kalkulatuko da eta horren arabera eskatuko da zerga.

   Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten zerbitzuak ustiatzeko emakidak direnean, ukitutako erkidegoen guztizkoaren gainean Euskadiko biztanleriak eta azalerak dauzkaten ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren arabera eskatuko da zerga.

   Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten emakida mistoak badira, aurreko hiru paragrafoetan jasotako irizpideak emakida-zatiari aplikatuta eskatuko da zerga.

   Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten administrazio-emakidak badira, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ikuskatuko du zerga, baldin eta erakunde emakidadunaren egoitza fiskala bertan badago.

5. Sozietate-eragiketetan, honako gorabeheretako bat gertatzen bada:

   a) Erakundeak egoitza fiskala Euskadin edukitzea.

   b) Erakundeak egoitza soziala Euskadin eduki behar du, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetako bateko beste tributu- administrazio bateko lurralde-eremuan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate-eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

   c) Erakundeak eragiketa batzuk Euskadin ere egin behar ditu, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta egoitza soziala Europar Batasuneko kide diren estatuetako bateko beste tributu-administrazio bateko lurralde-eremuan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate-eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

6. Notarioen eskritura, akta eta testigantzetan, baldin Euskadiko lurraldean baimendu edo ematen badituzte.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga-kuota gradualeko kasuetan, baldin eta ondasunak edo egintzak inskribatu behar diren edo haien idatzoharra egin behar den erregistroa Euskadiko lurraldean badago.

7. Kanbio-letretan eta haien ordezko balioa edo igorpen-zeregina duten agirietan eta ordaindukoetan, bonuetan, obligazioetan eta antzeko tituluetan, Euskadin igortzen edo jaulkitzen badira; atzerrian igortzen badira, lehenengo edukitzaileak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala Euskadiko lurraldean baldin badu.

8. Prebentziozko idatzoharretan, Euskadin kokatutako erregistro publikoetan egiten badira.

## 9. ATALA
## ASEGURU-PRIMEN GAINEKO ZERGA

### 32. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Aseguru-primen gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, nolanahi ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Foru-aldundiek ordainaraziko dute zerga baldin eta arriskua edo konpromisoa, aseguru-eta kapitalizazio-eragiketetan, Euskadiko lurraldean kokatzen bada.

Hiru. Hori dela eta, arriskua Euskadiko lurraldean kokatuta dagoela ulertuko da baldintza hauek betetzen direnean:

Lehenengoa. Asegurua ondasun higiezinei badagokie, ondasun higiezinak Euskadiko lurraldean egotea.

Arau bera erabiliko da asegurua ondasun higiezinei eta haien edukiari dagokienean, baldin eta aseguru-poliza batek berak estaltzen baditu ondasunak eta edukia. Asegurua ondasun higiezinean dauden ondasun higigarriei soilik badagokie, merkataritzako igarobidean dauden ondasunak izan ezik, ondasun higigarriak barruan dituen ondasun higiezin hori Euskadiko lurraldean egotea.

Aseguru batek berak estaltzen badu lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean dauden ondasun higiezinen arriskua, lurralde bakoitzean kokatutako ondasun higiezinen balioa kontuan hartuta kokatuko da bakoitzean.

Bigarrena. Asegurua edozein ibilgailu motari badagokio, ibilgailua bere izenean matrikulatuta daukan pertsonak edo erakundeak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala Euskadin edukitzea.

Hirugarrena. Asegurua bidaietan edo aseguru-hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gerta litezkeen arriskuei badagokie, eta aseguruaren iraupena gehienez lau hilabetekoa bada, aseguru-hartzaileak aseguru-kontratua Euskadiko lurraldean sinatzea.

Laugarrena. Aurreko arauetan berariaz azaldu gabeko kasu guztietarako: aseguru- hartzailea pertsona fisikoa bada, beraren ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean egotea, eta, bestela, kontratuan ageri den egoitza soziala edo sukurtsala Euskadiko lurraldean egotea.

Lau. Konpromisoa Euskadiko lurraldean kokatutzat joko da baldin eta, bizi-aseguruei dagokienez, aseguruaren kontratatzaileak lurralde horretan badu ohiko bizilekua, pertsona fisikoa izanez gero; pertsona juridikoa izanez gero, Euskadiko lurraldean izan behar du bere egoitza soziala edo sukurtsala, kontratuak sukurtsala aipatzen badu.

Bost. Aurreko zenbakietan kokapenari buruz adierazitako berariazko araurik egon ezik, aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak Euskadiko lurraldean eginak direla ulertuko da baldintza hauek betetzen direnean: kontratatzailea enpresari edo profesionala izanda, eragiketa horiek bere enpresa edo lanbide-jardueretan ari denean hitzartzea, eta bere jarduera ekonomikoaren egoitza Euskadiko lurraldean edukitzea, edo establezimendu iraunkorren bat edukitzea lurralde horretan, edo, bestela, bere egoitza bertan edukitzea.

## 10. ATALA
## ZERGA BEREZIAK

### 33. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergen ordainarazpena.

Bat. Zerga bereziak tributu itunduak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira horiek arautzeko.

Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga hauen karga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Fabrikazio-zerga bereziak foru-aldundiek eskatuko dituzte, zerga horien sortzapena Euskadin gertatzen bada.

Kuota eskuratu duen administrazioak itzuliko ditu fabrikazio-zerga bereziak , hala eskatzen zaizkionean. Dena dela, ezin baldin bada jakin kuotak zein administraziotan sartu ziren, itzultzeko eskubidea sortzen den lurraldeko administrazioak itzuli beharko ditu. Euskadin dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere,kasuan kasuko foru-aldundiaren eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik horren berri eman beharko zaie Estatuko Administrazioari eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.

Hiru. Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia foru-aldundiek eskatuko dute, zerga-egitatea egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren egoitza fiskala Euskadiko lurraldean badago.

Bat apartatuan xedatutakoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek karga-tasak handitu ahal izango dituzte, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen tasak oinarri hartuta, % 15, gehienez.

Lau. Ikatzaren gaineko zerga berezia foru-aldundiek eskatuko dute, zerga horren sortzapena Euskadin gertatzen bada.

Kontsumo edo autokontsumorako jartzen den unean ulertuko da sortzapena gertatu dela.

Kontsumorako jarri dela ulertuko da sortu, erauzi, inportatu edo Europar Batasunaren barruan eskuratu ondoren lehen salmenta edo ematea gertatzen denean.

Era berean, lehen salmentaren edo ematearen parekoa izango da enpresariek ikatza berriz saltzea, eskuratzeko orduan berriz saltzeko delako salbuespena aplikatu zaienean.

Autokontsumotzat hartuko da aurreko paragrafoan aipatzen diren enpresariek, Europar Batasunaren barruko eskuratzaileek, inportatzaileek, erauzleek edo ekoizleek ikatza erabiltzea edo kontsumitzea.

Bost. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du elektrizitatearen gaineko zerga berezia, honako kasu hauetan:

Energia elektrikoaren horniduraren kasuan, elektrizitatea bere kontsumorako eskuratzen duen pertsona edo erakundearen hornidura-puntua Euskadin badago.

Energia elektrikoaren ekoizleek eurek sortutako elektrizitatea kontsumitzen dutenean, kontsumo hori Euskadin gertatzen bada.

## 11. ATALA
## BEROTEGI-EFEKTUKO GAS FLUORDUNEN GAINEKO ZERGA

### 34. artikulua. Aplikatu beharreko araudia eta zergaren ordainarazpena.

Bat. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hura arautzeko.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, nolanahi ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskuduna den aldundiak egin beharko du zergaren ordainarazpena, Estatuko araudiak aipatzen dituen azken kontsumitzaileek zergaren xede diren produktuak erabiltzen badituzte lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldeankokatuta dauden instalazio, ekipo edo aparatuetan.

Berotegi-efektuko gas fluordunak autokontsumorako erabiltzen badira, Estatuko Administrazioak edo aldundi eskudunak egin beharko du zergaren ordainarazpena, hori gertatzen den lurraldea non dagoen kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoetan jasota ez dauden gainerako kasuetan, zerga-egitatea gertatzen den zergadunaren establezimendua non dagoen kokatuta, hango administrazioak egin beharko du ordainarazpena.

Hiru. Itzultzeko eskatu den kuota ordaindu zaion administrazioak egin beharko du beharrezkoa den itzulketa, hala eskatu zaionean, eta kuotaren zenbatekoa izango da muga.

## 11. BIS ATALA
## TRANSAKZIO FINANTZARIOEN GAINEKO ZERGA

### 34 bis artikulua. Araudi aplikagarria, zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.

Bat. Transakzio finantzarioen gaineko zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura arautzeko.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazioaren aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Bi. Subjektu pasiboek, egoitza fiskala edonon daukatela ere, foru aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko dizkiete zergak likidazio aldian zehar lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren proportzioan.

Lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioa honako honen arabera zehaztuko da: lurralde komunean edo foru lurraldean egoitza soziala duten sozietateen ekintzei lotutako eragiketei dagozkion zergaren zerga oinarri adierazten duen ehunekoaren arabera, subjektu pasibo bakoitzaren zerga oinarri bakoitzari dagokionez. Proportzio hori ehunekotan adieraziko da, bi hamarrekotan biribilduta.

Hiru. Zergaren ikuskaritza Foru Aldundi eskudunaren organoek egingo dute lurraldearenarabera subjektu pasiboaren zerga egoitza Euskal Herria denean, zerikusia duten gainerako zerga administrazioen lankidetza jaso dezakeen arren, eta ikuskaritza horrek ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, beraiei dagokien zerga ordainketaren proportzioa barne.

Ikuskapen lanen ondorioz bi administrazioei dagokien zor bat sartu edo kopuru bat itzuli behar bada, kobrantza edo itzulketa administrazio jarduleak egingo du eta gero, beharrezkoa bada, administrazioek konpentsazioak egingo dituzte euren artean.

Ikuskapen organo eskudunek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek subjektu pasiboarentzat ere izango dituzte ondorioak likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazioek behin betikoak adostu ahal izango dituzte.

## 11. TER. ATALA
## ZERBITZU DIGITAL ZEHATZEN GAINEKO ZERGA

### 34 ter. artikulua. Araudi aplikagarria, zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.

Bat.Zerbitzu digital zehatzen gaineko zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura arautzeko.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazioaren aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Bi. Zergadunek, zerga egoitza edonon daukatela ere, Foru Aldundiei, Estatuko Administrazioari edo bi administrazio horiei ordainduko dizkiete zergak, lurralde bakoitzean emandako zerbitzu digitalen prestazioen bolumenaren arabera.

Proportzio hori ehunekotan adieraziko da, bi hamarrekotan biribilduta; eta honako honen arabera zehaztuko da: administrazio bakoitzaren lurraldean emandako zerbitzuetatik lortutako diru-sarrerak adierazten duten ehunekoaren arabera, espainiar estatuan guztira lortutako diru-sarrerei dagokionez. Horri dagokionez, balio erantsiaren gaineko zerga eta beste zerga baliokide batzuk ez dira aintzat hartuko diru-sarreren zenbatekoan.

Hiru. Zerbitzu digitalak lurralde komunean edo foru lurraldean eman direla ulertuko da erabiltzaileen kokapenaren arabera, eta hori zergaren araudi arautzailean jasotako kokapen arauekin bat etorrita zehaztuko da.

Lau. Zergadunek zergaren autolikidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira, hala badagokio.

Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

Bost. Zergaren ikuskaritza Foru Aldundi eskudunaren organoek egingo dute lurraldearen arabera zergadunaren zerga egoitza Euskal Herria denean, zerikusia duten gainerako zerga administrazioen lankidetza jaso dezakeen arren, eta ikuskaritza horrek ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, beraiei dagokien zerga ordainketaren proportzioa barne.

Ikuskapen lanen ondorioz bi administrazioei dagokien zor bat sartu edo kopuru bat itzuli behar bada, kobrantza edo itzulketa administrazio jarduleak egingo du eta gero, beharrezkoa bada, administrazioek konpentsazioak egingo dituzte euren artean.

Ikuskapen organo eskudunek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek ondorioak izango dituzte zergadunarentzat, likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazioek behin betikoak adostu ahal izango dituzte.

## 12. ATALA
## ZEHARKAKO BESTE ZERGA BATZUK

### 35. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Zeharkako gainerako zergei dagokienez, Estatuak unean-unean ezarrita dituen oinarrizko printzipio, arau substantibo, zerga-egitate, salbuespen, sortzapen, oinarri, tasa, tarifa eta kenkari berak erabiliko dira haiek arautzeko.

## 13. ATALA
## JOKOAREN GAINEKO TRIBUTUAK

### 36. artikulua. Joko-jardueren gaineko zerga.

Bat. Joko-jardueren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berak erabiliko dira hori arautzeko.

Nolanahi ere, zergaren subjektu pasiboek zerga honen bidez kargatutako jarduerei dagokien informazio guztia jasoko dute ukitutako administrazio bakoitzaren aurrean aurkeztu beharreko ereduetan.

Hala ere, zerga honen bidez kargatutako jarduera gauzatzen duten operadoreek, antolatzaileek edo hura garatzen duten bestelakoek egoitza fiskala Euskadin dutenean, lurralde historikoetako erakunde eskudunek ezarritako karga-tasak handitu ahalko dituzte, gehienez ere % 20, oinarri gisa Estatuak ezarritako tasak hartuta. Gehikuntza hori bakar-bakarrik aplikatuko da Euskadiko lurraldean egoitza fiskala dutenek jokoan izandako partaidetzari dagokion zerga-oinarriaren zati proportzionalaren gainean.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epehoriek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Bi. Subjektu pasiboek, egoitza fiskala edozein lekutan dutela ere, ekitaldiaren barruan lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera ordainduko diete zerga foru- aldundiei, Estatuko Administrazioari edo biei.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioa Euskadin eta lurralde erkidean egoiliarrak diren jokalariek joko-modalitate bakoitzean jokatutako zenbatekoen pisu erlatiboaren arabera zehaztuko da. Proportzio hori ehunekotan emango da, bi dezimalekin biribilduta, eta berdin aplikatuko zaie Espainiako egoiliarrak ez diren jokalarien kuotei.

Jokalariaren bizilekua identifikatzea beharrezkoa ez den joko-modalitateen ondorioz likidatutako kuotak kasuan kasuko foru-aldundiari edo Estatuko Administrazioari, batari edo besteari, egotziko zaizkio, subjektu pasiboaren egoitza fiskala non dagoen, eta administrazioen artean beharrezkoak diren konpentsazioak geroago eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuak eta Estatuko elkarrekiko hipika-apustuak egitearen ondoriozko zergaren ordainarazpena, jokalariaren bizilekua identifikatzen ez bada, Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta

eskuduna den foru-aldundiak egin beharko du, apustua egiten den salmenta-puntua lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta.

Hiru. Subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Lau. Beharrezkoak diren itzulketak administrazioek egingo dituzte, bakoitzari dagokion proportzioan.

Bost. Subjektu pasiboaren egoitza fiskala edo haren ordezkariena –subjektu pasibo ez-egoiliarren kasuan– kokatuta dagoen administrazioaren organoek egingo dute subjektu pasiboen ikuskapena, ukitutako gainerako tributu-administrazioen elkarlana baztertu gabe, eta ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, haiei dagokien tributazio- proportzioa barne.

Nolanahi ere, Estatuko Administrazioari dagokio egoitza fiskala Euskadiko lurraldean duten subjektu pasiboen ikuskapena, baldin eta aurreko urtean jokatutako kopuruen zenbateko erantsia 7 milioi eurotik gorakoa bada eta lurralde erkidean egindako horien proportzioa, Bi apartatuan zehaztutako lotuneen arabera, gutxienez % 75ekoa edo gehiagokoa bada.

Halaber, lurraldea dela-eta eskuduna den aldundiaren organoei dagokie egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena, baldin eta aurreko urtean jokatutako kopuruen zenbateko erantsia 7 milioi eurotik gorakoa bada eta aurreko Bi apartatuan zehaztutako lotuneen arabera eragiketa guztiak Euskadiko lurraldean egin badira.

Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiekegin dituen administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada.

Eskumena daukan administrazioko organo ikuskatzaileek euren jarduketen emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Apartatu honen aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, tributu-administrazioek –zeinek bere lurralde barruan– egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien ahalmenak izango dituzte. Baina haien jarduketek ezin dute zergadunen artean inongo ondorio ekonomikorik izan, administrazio eskudunetako organoen jarduketen ondorioz egindako behin betiko likidazioen inguruan.

Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak ere bete beharko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

### 37. artikulua. Jokoaren gaineko beste tributu batzuk.

Bat. Jokoaren gaineko gainerako tributuak tributu itunduak dira, araudi autonomokoak, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan. Estatuak unean-unean ezarrita duen araudia aplikatuko da zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

Bi. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zori-, enbido- eta adur-jokoen gaineko tasa, zerga-egitatea Euskadin egiten denean.

Hiru. Lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak ordainaraziko du zozketa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen gaineko tasa fiskala, baimena Euskadin eman behar den kasuetan.

## 14. ATALA
## TASAK

### 38. artikulua. Tasak ordainarazteko eskumena.

Foru-aldundiei dagokie eska daitezkeen tasak ordainaraztea euren jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik, eta zuzenbide publikoko araubidean foru-aldundiek eurek egiten dituzten jarduketengatik edo ematen dituzten zerbitzuengatik.

## 15. ATALA
## TOKI-OGASUNAK

### 39. artikulua. Ondasun higiezinen gaineko zerga.

Ondasun higiezinen gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da. Zerga horrek kasuan kasuko lurralde historikoan dauden landa-ondasun eta hiri-ondasunak kargatuko ditu.

### 40. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Bat. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da.

Bi. Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainaraziko dute euren lurraldean aurrera eramandako jarduerengatik, arau hauek beteta:

a) Gutxieneko udal-kuotak direnean, edo aldatutakoak, kuota horiek lurralde historikoko udalen alde sortzen direnean.

b) Probintzia-kuotak direnean, jarduera lurralde historikoan burutzen baldin bada.

c) Probintzia batean baino gehiagotan jarduteko aukera eskaintzen duten kuotak baldin badira, subjektu pasiboak ohiko bizilekua edo egoitza fiskala Euskadin baldin badu, egoki denaren arabera. Kuota hori lurralde erkideko edo foru-lurraldeko tokian tokiko administrazioari ordainduz gero, jarduera bi lurraldeetan eraman ahal izango da aurrera.

### 41. artikulua. Trakzio Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da, zirkulazio-baimenean ageri den egoitza lurralde horretako udalerriren batekoa baldin bada.

### 42. artikulua. Tokiko beste tributu batzuk.

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek toki-erakundeen gainerako tributu propioen araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute, bakoitzak bere lurraldearen barruan, ondoren aipatzen diren irizpideak beteta:

a) Araubide erkideko tokiko tributu-sistemarentzat ezarritako egitura orokorra eta egitura horren printzipioak kontuan izatea, gai honetan 3. artikuluan ezarritako harmonizazio- arauak errespetatuta.

b) Araubide erkidekoez gainera, zeharkako bestelako zerga-figurarik ez ezartzea, zerga-figura horien etekina Euskadiko lurraldetik kanpora beste batean jasanarazi edo eskualdatu badaiteke.

## 16. ATALA
## KUDEAKETA- ETA PROZEDURA-ARAUAK

### 43. artikulua. Ohiko bizilekua eta egoitza fiskala.

Bat. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, pertsona fisiko egoiliarrek ohiko bizilekua Euskadin dutela ulertzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

Lehenengoa. Lurralde horretan zergaldiko egun gehien egotea, pertsona fisikoenerrentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen-egunaren bezperan amaitzen den aurreko urtebeteko egun gehien egotea, datatik datara zenbatuta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Gainerako tributuei dagokienez, pertsona fisikoen ohiko bizilekua izango da tributuen sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako den bizileku bera.

Lurralde jakin batean egon den denbora zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoelaulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan badu.

Bigarrena. Lurralde horretan baldin badu bere interesen gune nagusia; leku hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena eskuratzen duen lekua da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko kapital higigarriak sortutako errentak eta ondare-irabaziak, ez eta gardentasun fiskalaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

Hirugarrena. Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.

Bi. Espainiako egoiliarrak diren pertsona fisikoen kasuan, egutegiko urtean zehar ez badira lurralde horretan ehun eta laurogeita hiru egun baino gehiago egoten, Euskadiko egoiliarrak direla ulertuko da bertan baldin badute enpresa- edo lanbide-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria.

Hiru. Legez banandu gabe dagoen ezkontideak eta haren mende dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadin izateagatik pertsona fisiko bat Espainiako egoiliartzat jotzen baldin bada, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean duela ulertuko da.

Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da:

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

b) Sozietateen gaineko zergaren mendean dauden pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute egoitza soziala eta, betiere, egoitza sozial horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada.

   Irizpide horiek erabilita egoitza non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan.

c) Establezimendu iraunkorrak, Euskadin egiten badute euren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Irizpide hori erabilita egoitza non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan.

d) Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, Euskadin egiten baldin badute kudeaketa eta zuzendaritza. Irizpide hori erabilita egoitza fiskala non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena zein lurraldetan duten hartuko da kontuan.

Bost. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek eta erakunde ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek bi administrazioei eman behar diete egoitza fiskalaren aldaketen berri, baldin eta egoitza fiskalaren aldaketak zerga hau ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, zergaren aitorpena aurkeztea nahikoa izango da jakinarazpen hori egiteko.

Sei. Zergadunen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean desadostasunak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergadunek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori ekonomia-itun honen III. kapituluko
3. atalean dago araututa.

Zazpi. Lurralde erkideko edo foru-lurraldeko egoiliarrak diren pertsona fisikoak beren ohiko bizilekua lurralde horietako batetik bestera aldatzen baldin badute, tributu-betebeharrak bizileku berriaren arabera beteko dituzte aurrerantzean, bizileku berri hori lotunea baldin bada.

Gainera, apartatu honen arabera bizilekua ez dela aldatu ulertzen bada, pertsona fisikoek kasuan kasuko aitorpen osagarriak aurkeztu beharko dituzte, berandutze-interesak eta guzti.

Bizilekua aldatzearen helburu nagusia tributu gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko.

Bizileku berrian jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan ulertuko da inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria aldaketaren aurreko urtean izandako zerga-oinarria baino % 50 handiagoa izatea, gutxienez. Baterako tributazioa egiten denean, indibidualizazio-arauak erabiliz zehaztuko da.

b) Egoera hori sortzen den urtean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiarekin gertatuko zatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

c) Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea, a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo horren hurrengoan.

Zortzi. Kontrako frogarik egon ezik, pertsona juridikoen egoitza fiskala ez dela aldatu ulertuko da baldin eta aldaketaren aurreko edo ondoko urtean bat ere jarduerarik egiten ez badute edo jarduera burutzeari uzten badiote.

Bederatzi. Administrazio interesdunetatik edozeinek eragin ahal izango du zergadunaren egoitza-aldaketa. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta lau hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Beste administrazioak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulu honetako Sei apartatuan azaldutako eran.

Egoitza aldatzeko proposamena igorri aurretik, administrazio interesdunak, beste administrazioarekin elkarlanean, erroldaren bidez egiaztatu ahal izango du egoitza fiskala.

Bi administrazioek adostu ondoren edo Arbitraje Batzordearen ebazpenaren ondorioz egoitza ofizioz aldatuz gero, aurkako frogarik ezean, era horretan xedatutako egoitza fiskalari ebazpenaren ondorengo hiru urteetan eutsiko zaiola ulertuko da.

### 44. artikulua. Delitu fiskala.

Tributu-administrazioak uste baldin badu arau-hausteak Ogasun Publikoaren aurkako delituak izan daitezkeela, eskumena duen jurisdikzioari bidaliko dio erruduntasun-testigantza, Zigor Kodean xedatutakoaren arabera.

Zigor Kodearen 305.5 artikuluari jarraituz tributu-zorra zehazteko eta kobratzeko jarduketek aurrera egin badezakete, ikuskapena egiteko eskumena duen administrazioak jardungo du, ekonomia-itun honetan xedatutakoaren arabera dagokion tributu-araudia aplikatuz.

Zigor Kodearen 305.7 artikuluari jarraituz epaileak edo auzitegiak tributu-administrazioaren zerbitzuen laguntza eskatu behar duenean delituaren eta isunaren ondoriozko erantzukizun zibila ordainarazteko, itun honen arabera eskuduna den tributu-administrazioak emango du laguntza hori.

Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragotziko, beharrezkoa bada, administrazioek batak besteari konpentsazioak ematea.

### 45. artikulua. Finantza-erakundeen elkarlana tributuen kudeaketan, eta tributuen ikuskaritzaren jarduketak.

Bat. Euskadiko foru-aldundien eskumenekoak diren tributuak ordainaraztea dela eta, haien eginkizuna izango da bankako trafikoan edo kredituen trafikoan diharduten finantza-erakundeen eta pertsona fisiko eta juridikoen kontuak eta eragiketak, aktiboak zein pasiboak, tributuen arloan ikertzea.

Bi. Ekonomia-itun honek Euskadiko foru-aldundiei emandako eskumenak direla eta, daturen bat egiaztatzeko edo ikertzeko Euskadiko lurraldetik kanpora jarduketaren bat egin behar baldin bada, eginkizun hori Estatuko organo eskudunek eramango dute aurrera, edo lurraldea dela-eta eskuduna den autonomia-erkidegoko ikuskaritzak berari lagatako tributuei buruz bada, foru-aldundietako organo eskudunak hala eskatzen dienean. Jarduketa horiek direla eta, Estatuko Administrazioak eta foru-aldundiek beharrezkoak diren elkarlanerako eta elkarren laguntzarako hitzarmenak adostuko dituzte, ekonomia-itun honen 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz jarduketok koordinatzeko.

Hiru. Foru-aldundietako organo eskudunek egingo dituzte foru-aldundien eskumenekoak diren tributuak ordainarazteko informazioa eskuratzeko jarduketak, ezertan ere eragotzi gabe ekonomia-itun honen 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz jarduketok koordinatzeko egin daitezkeen elkarlanerako eta elkarren laguntzarako hitzarmenak.

Lau. Estatuko edo autonomia-erkidegoetako edo foru-aldundietako organo eskudunek, egiaztatzeko edo ikertzeko jarduketen ondorioz edo tributuak ordainarazteko informazioa eskuratzeko jarduketen ondorioz, beste administrazioan tributuen arloan eragina duten egitateen berri izaten baldin badute, horren berri emango diote batak besteari, arauz zehaztuko den moduan.

### 46. artikulua. Informatzeko betebeharrak.

Bat. Egiten diren atxikipenen eta konturako sarreren laburpenak, haietan jaso behar diren atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena zein administraziorena den, administrazio horri aurkeztu behar zaizkio, zeinek bere araudia betez.

Baloreen gordailuzainak edo balore-errenten kobrantzaren kudeatzaileak diren erakundeek, baldin eta, aplikatu beharreko araudiaren arabera, errenta horiek direla-eta atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkeztu beharra badute, erakundeok egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan administrazioari aurkeztu beharko dizkiote laburpenak, zeinek bere araudia betez.

Estatuak eta foru-aldundiek eska dezaketen sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak diren erakundeek ekonomia-itun honetako 7.Bat.c), 9.Bat.Lehenengoa.a) eta 23.Bi artikuluetan aipatutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak aurkeztu behar dituzte, kasuan-kasuan zerga ordainarazteko eskumena daukan administrazioak aitorpenak aurkezteko lekuari, erari eta epeari buruz ezarritako arauak betez, horietako bakoitzari aurkeztutako aitorpenean haiei dagozkien etekin eta atxikipen guztiak barne.

Bi. Tributu-informazioa emateko orokorrean legez eskatzen diren betebeharrak betetzea helburu duten aitorpenak Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskuduna den foru- aldundiari aurkeztu behar zaizkio, zeinek bere araudia betez, irizpide hauek kontuan harturik:

a) Tributu-betebeharpekoek jarduera ekonomikoak egiten badituzte, eurek egiten dituzten enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena daukan administrazioari.

b) Tributu-betebeharpekoek ez badute jarduera ekonomikorik egiten, egoitza fiskala non daukaten hartu behar dute kontuan, lurralde erkidean edo foru-lurraldean.

Aurreko letretan xedatutakoaren ondorioetarako, jarauntsi banatugabeak, ondasun-erkidegoak edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuk direnean, aipatutako aitorpen horiek haien kideek edo partaideek egoitza fiskala duten administrazioaren aurrean ere aurkeztubeharko dira.

Hiru. Errolda-aitorpenak, bestalde, egin behar dituen pertsonak edo erakundeak bere egoitza fiskala non duen, hango administrazioari aurkeztu behar dizkio, zeinek bere araudia betez; baita pertsona edo erakunde horrek ekonomia-itun honetan ezarritako arauen indarrez aitorpen hauetakoren bat aurkeztu behar dion administrazioari ere:

- Atxikipenen eta konturako sarreren aitorpena.
- Sozietateen gaineko zergaren aitorpen-likidazioa.
- Balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen-likidazioa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena.
- Zerbitzu digital zehatzen gaineko zergaren aitorpena.

### 47. artikulua. Enpresak bat egitea eta zatitzea.

Enpresak bat egiteko eta zatitzeko eragiketetan, aurreko 14. artikuluan aipatzen diren tributazio-irizpideei jarraituta kasuan kasuko tributu-onurak bi administrazioek aitortu beharbaldin badituzte, foru-aldundiek aplikatuko duten araudia une bakoitzean lurralde erkideanindarrean egongo den bera izango da, eta kasuan kasuko administrazio-espedienteak izapidetuko dira administrazio bakoitzean.

### 47. bis artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea eta errebokatzea.

Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek beren egoitza fiskalari dagokion administrazioaren aurrean eskatu beharko dute identifikazio fiskaleko zenbakia eslei diezaieten.

Establezimendu iraunkorrik ez duten erakunde ez-egoiliarrek tributuen izaera edo tributuen arloan eragina duten egintzak edo eragiketak egiten dituzten lurraldeko administrazioari eskatu behar diote eslei diezaien identifikazio fiskaleko zenbakia, salbu eta beste tributu-administrazio batek aurrez identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu badie.

Identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzeko eskumena egoitza fiskaleko administrazioarena izango da, salbu eta egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena beste administrazioren bati esleituta badago, orduan azken horrena izango baita. Establezimendu iraunkorrik ez duten erakunde ez-egoiliarren kasuan, identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu zuen administrazioarena izango da hura errebokatzeko eskumena.

Bi kasuotan, bi administrazioen arteko koordinazio egokia eta informazio-trukea bermatuko dira.

**47. ter artikulua. Ordainarazpenak eta ikuskapenak egiteko eskumenen koordinazioa.**

Bat.Ekonomia-itun honetako irizpideen arabera administrazio ezberdinei badagokie hurrengo Bi apartatuak hizpide dituen eragiketak erregularizatzeko ikuskapen-eskumena, erregularizazioak ukitutako gainerako administrazioekin koordinatu beharko dituzte ordainarazpenak eta ikuskapenak egiteko beren eskumenak, artikulu honetan xedatutakoari jarraituz.

Bi. Eskumenen koordinazioa kasu hauetan gauzatuko da:

a) Pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketen erregularizazioa.

b) Eragiketen kalifikazioa zergadunak aitortu dituen moduaz bestera egitea, baldin eta horren ondorioz zergak jasanarazteko mekanismoa ezarri den zeharkako zergetan jasandako edo jasanarazitako kuotak aldatzen badira.

Hiru. Aurreko apartatuak hizpide dituen kasuetan, haien inguruan eskumenak egikaritzen ari den administrazioak beharrezkotzat jotzen duen erregularizazioko egitatezko elementuen eta zuzenbideko oinarrien berri eman beharko die ukitutako beste administrazioei, zergadunarentzako ebazpen-proposamena egin baino lehen edo dagokion ikuskapen-akta formalizatu baino lehen.

Baldin eta bi hileko epean ukitutako beste administrazioek ez badute oharrik egiten ebazpen-proposamenaren gainean, proposamena onetsi dela ulertuko da eta administrazio horiek guztiak lotetsita geratuko dira zergadunen aurrean, irizpide horiek aplikatuko baitizkiete.

Oharrik badago, horien berri emango zaio Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari, eta batzorde horretan oharren gaineko akordioa lortu ahalko da.

Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, bai Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete bat izango dute desadostasuna Arbitraje Batzordera eramateko. Arbitraje Batzordeak gatazka konpondu beharko du, zergadunak dioena entzun ondoren, ekonomia-itun honetako 68. artikuluan aurreikusitako prozedura laburtua erabiliz.

Lau. Behin gatazka konpondu ondoren, edo konponbiderik ezean itun honetako 68. artikuluko Bi apartatuko epeak igaro eta Arbitraje Batzordeak erabakirik eman ez badu, horretandiharduen administrazioak jarduketei ekiten jarrai dezake eta administrazio-egintzak eman ditzake; egintza horien ondorioak etenda geldituko dira Arbitraje Batzordeak ebazpena eman arte.

## II. KAPITULUA
## FINANTZA-HARREMANAK

### 1. ATALA
### ARAU OROKORRAK

**48. artikulua. Printzipio orokorrak.**

Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanek printzipio hauek beteko dituzte:

Lehenengoa. Euskadiko erakundeek euren eskumenak garatu eta egikaritzeko autonomia fiskal eta finantzarioa izango dute.

Bigarrena. Elkartasunari begirunea zor zaio, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan zehaztutako moduan.

Hirugarrena. Aurrekontu-egonkortasunaren arloan Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatuko dira eta berarekin elkarlanean arituko dira.

Laugarrena. Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zamak direla- eta, Euskadik ekarpena egingo du, ekonomia-itun honetan zehaztu den eran.

Bostgarrena. Toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean egikaritzen dituen finantza-zaintzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie, baina, horren ondorioz, Euskadiko toki-erakundeek ezin dute, inola ere, araubide erkidea duten toki-erakundeena baino autonomia txikiagoa izan.

### 49. artikulua. Kupoaren kontzeptua.

Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo global bat izango da, eta kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen Estatuaren zama guztiei dagokien ekarpena da kupoa.

### 50. artikulua. Kupoaren aldizkakotasuna eta eguneratzea.

Bat. Bost urtetik behin, Gorte Nagusietan bozkatutako legearen bidez, eta aldez aurretik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa lortuta, bosturtekoan aginduko duen kupoa zehazteko metodologia zein izango den erabakiko da, ekonomia-itun honetan jasotako printzipio orokorrekin bat. Era berean, bosturtekoaren lehenbiziko urteko kupoa ere onetsiko da.

Bi. Lehenbiziko urtearen ondorengo urte bakoitzean, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak kupoa eguneratu egingo du, aurreko apartatuan aipatutako legean onartutako metodologia aplikatuta.

Hiru. Itun honetan jasotako kupoa zehazteko metodologia bideratzen duten printzipioak aldatu egin ahal izango dira Kupoari buruzko Legean, unean uneko egoerak eta hura aplikatzean izandako esperientziek hala egitea gomendatzen badute.

### 51. artikulua. Tributu itundugabeak direla-eta izandako diru-sarreretatik Euskadiko toki-erakundeei eman beharrekoa.

Tributu itundugabeetan duten parte hartzea dela-eta izan beharreko zeharkako ekarpenen kasuan, banaketako arau orokorren arabera banatu beharreko diru-kopuruak foru-aldundiek banatuko dituzte beren lurralde historikoetako toki-erakundeen artean.

## 2. ATALA
## KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA

### 52. artikulua. Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko zamak.

Bat. Hauek joko dira Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren zamatzat: Autonomia Erkidegoak egikaritzeko benetan bere gain hartu ez dituen eskumenei dagozkienak.

Bi. Zama horien diru-zenbateko osoa zein den zehazteko, eragiketa hau egingo da: kasuan kasuko dekretuetan finkatutako transferentzien eraginkortasun-egunetik Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenei estatu-mailan dagokien aurrekontu-esleipen osoa kenduko zaio Estatuaren aurrekontuko gastu osoari.

Hiru. Beste batzuen artean, hauek hartuko dira Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko zamatzat:

a) Konstituzioaren 158.2. artikuluan aipatutako Lurraldearteko Konpentsazio Funtserako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan esleitutako kopuruak.

   Zama hori dela-eta egin beharreko ekarpena Kupoari buruzko Legean zehaztutako prozeduraren araberakoa izango da.

b) Estatuak ente publikoentzat egindako transferentziak edo ente horiei emandako diru-laguntzak, baldin eta ente horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu.

c) Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak, Kupoari buruzko Legean zehaztutakoaren arabera.

Lau. Bereganatu gabeko zamak lurralde historikoei nola egotziko zaizkien jakiteko, hurrengo 57. artikuluan aipatzen diren indizeak erabili beharko dira.

**53. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zerga kontsumoari doitzea.**

Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta lortzen diren sarreren egozketa hobetzeko asmoarekin, Euskadiko zerga-bilketarako ahalmenaren indizea eta kontsumo-indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezarri da.

Bi. Doikuntza hori eragiketa matematiko honen emaitza izango da:

$RF_{PV} = RR_{PV} + a^* RR_{AD} + (a - b)^* H$

Non:

$H = RR_{PV}/b$ baldin $RR_{PV}/RR_{TC} \leq b/1 – b$

$H= RR_{TC}/1 - b$ baldin $RR_{PV}/RR_{TC} \geq b/1 - b$

$RF_{PV}$ = urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

$RR_{PV}$ = urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

$RR_{TC}$ = urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

$RR_{AD}$ = urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla-eta.

a = Euskadiko egoiliarren kontsumoa/Estatuko egoiliarren kontsumoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

$b = v - f - e + i / V - F - E + I$

v = Euskadiko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina.

V = Estatuko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

f = Euskadiko kapital-eraketa gordina.

F = Estatuko kapital-eraketa gordina (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

e = Euskadiko esportazioak.

E = Estatuko esportazioak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

i = Euskadin egindako Europar Batasunaren barruko eskurapenak.

I = Estatuan egindako Europar Batasunaren barruko eskurapenak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

Hiru. Kupoari buruzko Legean zehaztuko da, epealdi bakoitzerako, aurreko Bat apartatuan aipatu diren indizeen balioa.

Lau. Aurreko doikuntza behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako prozedura erabiliko da, une bakoitzean indarrean dena.

**54. artikulua. Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak kontsumoari doitzea.**

Bat. Alkoholaren eta edari deribatuen, tarteko produktuen, garagardoaren, hidrokarburoen eta tabako-laboreen fabrikazio-zerga bereziak direla-eta lortzen diren sarreren egozketa hobetzeko asmoarekin, Euskadiko zerga-bilketarako ahalmenaren indizea eta zerga horietako bakoitzaren kontsumo-indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezarri da.

Bi. Doikuntza hori eragiketa matematiko honen emaitza izango da, arestian aipatutako zergetariko bakoitzean:

$RF_{PV} = RR_{PV} + c^* RR_{AD} + (c - d)^* H$

Non:

$H = RR_{PV}/d$ baldin $RR_{PV} / RR_{TC} \leq d/1 - d$

$H = RR_{TC}/1 - d$ baldin $RR_{PV} / RR_{TC} \geq d/1 - d$

$RF_{PV}$ = urteko azken zerga-bilketa Euskadin, alkoholaren eta edari deribatuen eta tarteko produktuen, edo garagardoaren, edo hidrokarburoen, edo tabakoaren gaineko fabrikazio-zerga bereziak direla-eta.

$RR_{PV}$ = urteko benetako zerga-bilketa Euskadin, alkoholaren eta edari deribatuen eta tarteko produktuen, edo garagardoaren, edo hidrokarburoen, edo tabakoaren gaineko fabrikazio-zerga bereziak direla-eta.

$RR_{TC}$ = urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean, alkoholaren eta edari deribatuen eta tarteko produktuen, edo garagardoaren, edo hidrokarburoen, edo tabakoaren gainekofabrikazio-zerga bereziak direla-eta.

$RR_{AD}$ = urteko benetako zerga-bilketa, inportazioak direla-eta, alkoholaren eta edari deribatuen eta tarteko produktuen, edo garagardoaren, edo hidrokarburoen, edo tabakoaren gaineko fabrikazio-zerga berezia dela-eta.

c = Euskadiko egoiliarren kontsumoa / Estatuko egoiliarren kontsumoa (zergaren aplikazio-eremua)

d = Euskadiko zerga-bilketarako ahalmena / Estatuko zerga-bilketarako ahalmena (zergaren aplikazio-eremua)

Hiru. Kupoari buruzko Legean zehaztuko da, epealdi bakoitzerako, aurreko Bat apartatuan aipatu diren indizeen balioa.

Lau. Aurreko doikuntzak behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako prozedura erabiliko da, une bakoitzean indarrean dena.

**55. artikulua. Beste doikuntza batzuk.**

Bat. Zuzeneko zergapetzea hobetzeko, doikuntza egingo da, ekonomia-itun honen 9.bat.lehenengoa.b) eta 7.bi artikuluetan ageri diren kasuak kontuan hartuta ateratako kopuruen gainean.

Bi. Halaber, Kupoari buruzko Legean, behar izanez gero, beste doikuntza-mekanismo batzuk ezarri ahal izango dira, Euskadiri eta Estatuko gainerakoari egotzi beharreko sarrera publikoen zenbatespena hobetzeko.

Hiru. Beharrezkoak diren doikuntzak eginda ateratzen diren zenbatekoak izango dira lurralde historiko bakoitzaren kupoa.

**56. artikulua. Konpentsazioak.**

Bat. Lurralde historiko bakoitzari dagokion kupotik, konpentsazio gisa kontzeptu hauei dagozkien kenketak egingo dira:

a) Tributu itundugabeen zati egozgarria.

b) Aurrekontuko diru-sarrera ez-tributarioen zati egozgarria.

c) Estatuaren aurrekontu orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarria, Kupoari buruzko Legean zehaztuko den moduan. Superabita izanez gero, kontrako moduan jardungo da.

Bi. Aurreko zenbakian adierazitako kontzeptuen egozpena, hurrengo 57. artikuluan ezarritako indizeak aplikatuta egingo da.

**57. artikulua. Egozpen-indizeak.**

Bat. Aurreko 52., 55.bi eta 56. artikuluetan aipatzen diren egozpenak egiteko indizeak,funtsean, lurralde historikoetako errenta eta Estatuko errenta erkatuta zehaztuko dira.

Bi. Indize horiek Kupoari buruzko Legean zehaztuko dira eta lege hori indarrean dagoen artean aplikatuko dira.

**58. artikulua. Bereganatutako eskumenak aldatzeak behin-behineko kupoan dituen ondorioak.**

Bat. Kupoa, aurreko araudiaren arabera zehaztuta, urtero indarrean dagoen bitartean Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenen bat bereganatu badu, eta eskumen horren Estatu mailako urteroko kostua sartuta baldin bazegoen kupoaren behin-behineko kopurua zenbat izango zen jakiteko erabili ziren Estatuaren zamen barruan, urteroko kostu hori murriztu egingo da, Euskadik eskumen horiek bereganatu dituen urteko zatiaren proportzioaren arabera. Era berean, eta aurrekoaren ondorioz, kupoa ere murriztu egingo da kasuan kasuko kopuruan.

Aipatu den murrizte proportzional horrek gastu arruntak benetan zenbatean behin sortzen diren kontuan izango du, bai eta Estatuaren inbertsioak benetan zenbateraino burutu diren.

Bi. Modu berean jardungo da Autonomia Erkidegoak behin-behineko kupoaren zenbatekoa zehazteko orduan zituen eskumenen batzuk egikaritzeari uzten badio. Hala gertatuko balitz, kupoa beharrezkoa den beste handituko litzateke.

**59. artikulua. Behin-behineko eta behin betiko likidazioak.**

Hasieran eta behin-behingoz kupoa eta beharrezkoak diren konpentsazioak zenbatekoak izango diren zehazteko, kasuan kasuko urterako onetsitako Estatuaren aurrekontuko kopuruak hartuko dira kontuan.

Ekitaldia amaitu ondoren eta Estatuaren aurrekontuen likidazioa egin ostean, egin beharreko zuzenketa guztiak egingo dira ekonomia-itun honetako 52., 55. eta 56. artikuluetan aipatzen diren magnitudeetan.

Zuzenketa horien ondorioz sortzen diren diferentziak –aldekoak edo kontrakoak– diferentzia horiek gauzatu diren urtearen hurrengo urteko behin-behineko kupoan gehituko dira aljebraikoki.

**60. artikulua. Kupoa ordaintzea.**

Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen kopurua hiru zenbateko berdinetan ordainduko dio Estatuko Ogasun Publikoari, ekitaldi bakoitzeko maiatzean, irailean eta abenduan.

## III. KAPITULUA
## EKONOMIA ITUNAREN BATZORDEAK ETA ARBITRAJE BATZORDEA

### 1. ATALA
### EKONOMIA ITUNAREN BATZORDE MISTOA

**61. artikulua. Kideak eta erabakiak.**

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa honela egongo da osatuta: batetik, foru-aldundietako ordezkari bana eta Eusko Jaurlaritzako hiru ordezkari; bestetik, Estatuko Administrazioaren aldetik, aurreko guztiak beste ordezkari egongo dira.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabakiak aho batez hartuko dira, batzordekide guztiak ados jarrita.

**62. artikulua. Eginkizunak.**

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak eginkizun hauek izango ditu:

a) Ekonomia Itunaren aldaketak erabakitzea.

b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloko elkarlanari eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.

c) Bosturteko bakoitzean kupoa zehazteko metodologia erabakitzea.

d) Kapitulu honetako 3. atalean araututako Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, eta bai Batzordearen jardunbideari, biltzeko deialdiei, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena ere.

e) Tributu- eta finantza-gaiei buruz une bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, itun honetan ezarritakoa behar bezala aplikatu eta garatu dadin.

### 2. ATALA
### ARAUGINTZA KOORDINATU ETA EBALUATZEKO BATZORDEA

**63. artikulua. Kideak.**

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea era honetan egongo da osatuta:

a) Estatuko Administrazioaren lau ordezkari.

b) Autonomia Erkidegoaren lau ordezkari, Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak; lau horietatik hiru foru-aldundiek proposatuko dituzte, bakoitzak bat.

**64. artikulua. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunak.**

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Tributu-araudia Ekonomikoa Itunari egokitzen zaion aztertzea hura argitaratu aurretik.

   Hori dela-eta, ekonomia-itun honen 4. artikuluko Bat apartatuan azaldu den bezala administrazioek euren araugintza-proiektuak elkarri erakusten dizkiotenean, proiektuotan

jasotako proposamenak direla-eta inork oharren bat egiten badu, Batzordean ordezkariak dituzten erakunde eta administrazioetariko edozeinek, idatziz eta zioak azaldurik, Batzordearen bilerarako deialdia egin dadila eskatu ahal izango du. Deialdia egiteko eskatzen den egunetik hasita, Batzordeak 15 eguneko epean egin behar du bilera, proposatutako araudia Ekonomia Itunekoarekin bat datorren aztertzeko, eta ahaleginak egingo ditu, araua argitaratu baino lehen, bertan ordezkatuta dauden erakunde eta administrazio guztiek tributu-araudiaren edukiaren inguruan desadostasunik badagoakordioa lor dezaten.

b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsitzat joko da.

   Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.

c) Aurreko 47 ter artikuluko gaien inguruan planteatzen diren oharren gainean ebazpena ematea.

d) Egoki deritzon azterlanak egitea araubide autonomikoa eta Estatuko marko fiskala egokiro uztartzeko, egituraren eta eginkizunen aldetik.

e) Administrazio eskudunei euren jardunak elkarri egokitzeko irizpideak, planak eta informatikako programak eskaintzea, eta elkarlanaren eta informazio-trukearen printzipioa benetan gauzatu dadin erabili behar diren tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak artikulatzea eta erabakitzea.

f) Ikuskapen-gaietan Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortutako auziak edo arazoak aztertzea, baita tributuen ondoreetarako egindako balorazioen inguruko arazoak ere.

g) Txostenak egitea Ogasun Ministerioarentzat, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako ogasun-sailentzat eta Arbitraje Batzordearentzat, haiek eskatuz gero.

h) Ekonomia-itun hau aplikatu eta betearaztearekin zerikusia duten beste eginkizun guztiak.

## 3. ATALA
## ARBITRAJE BATZORDEA

### 65. artikulua. Kideak.

Bat. Arbitraje Batzordeak hiru kide izango ditu. Horien izendapena Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako ministroak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak formalizatuko dute.

Bi. Arbitroak sei urteko aldi baterako izendatuko dira.

Hiru. Karguren bat hutsik geratzen denean, izendapenerako prozedura bera erabiliko da hura betetzeko.

Kargua utzi duen kideari agintaldia amaitzeko geratzen zaion denborarako izendatuko da haren ordezkoa.

Lau. Arbitraje Batzordeko kideak itzal handiko adituak izan behar dira, tributuen edo ogasunaren arloan lanbidez aritutakoak hamabost urtetan, gutxienez.

### 66. artikulua. Eginkizunak.

Bat. Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Bi. Eskumen-gatazkaren bat sortzen denean, ukitutako administrazioek horren berri jakinaraziko diete interesdunei; horrenbestez, preskripzio-epea eten egingo da eta hortik aurrera administrazio horiek ez dute inolako jarduketarik egingo.

Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan interesdunei entzun egingo zaie.

Hiru. Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira.

### 67. artikulua. Arbitraje Batzordearen erabakiak.

Arbitraje Batzordeak zuzenbidearen arabera ebatziko ditu espediente bakoitzak agerian jartzen dituen auzi guztiak, betearazpen-formulak barne direla, berdin da auzi horiek gatazkako alderdiek edo interesdunek aurkeztutakoak diren edo ez; eta ebazpenetan ekonomia, bizkortasun eta efikazia printzipioen arabera jardungo du.

Arbitraje Batzorde horrek hartutako erabakiei, betearaztekoak badira ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango zaie aurkeztu Auzitegi Goreneko arlo horretako salan.

### 68. artikulua. Prozedura bereziak.

Bat. Hauek dira ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura bereziak: prozedura laburtua, ondorioak zabaltzea eta betearazte-intzidentea.

Bi. Prozedura laburtua aplikatuko da ekonomia-itun honetako 64. artikuluko b) letrako eta 47.ter artikuluko Hiru apartatuko kasuetan.

Kasu horietan, auziak izapidetzeko hilabeteko epean onartuko beharko ditu ArbitrajeBatzordeak, aurkezten direnetik zenbatzen hasita; hamar eguneko epe komuna emango die ukitutako alderdi guztiei alegazioak egin ditzaten, eta epe hori bukatu eta hilabetean eman beharko du ebazpena.

Hiru. Ekonomia Itun honetan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka baten parte denak (Arbitraje Batzordearen ebazpen irmoaren bidez ebatzitako beste baten oinarri berbera duen gai bati dagokionez) eskatu ahal izango du ebazteke dagoen gatazka ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzearen bidez emateko.

Cuatro. Ondorio horietarako, Arbitraje Batzordeak helarazi beharko dizkie lotuta dauden gainerako aldeei ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzearen eskaera idatzia, hamar eguneko epe komunean, egoeren artean dagoen oinarri berberari dagozkion alegazioak egin ditzaten,

eta ebazpena ematea, hilabeteko epean ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzea edo arbitraje prozedurak arau orokorren arabera jarraitzea erabakita.

Bost. Betearazte-intzidentearen bidez, ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura batean alderdi izan denak Arbitraje Batzordearen ebazpena betearazteko neurriak eskatu ahalko ditu baldin eta ukitutako administrazioak ez badu ebazpena bere horretan betearazi.

Betearazpen-intzidenteen gainean Arbitraje Batzordeak hartzen dituen erabakietan, ekonomia-itun honetako 67. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengo xedapen gehigarria.

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek ekonomia-itun hau aplikatzekobeharrezkoak diren xedapenak ematen ez dituzten artean, lurralde erkidean indarrean dauden arauak aplikatuko dira. Arau horiek, dena dela, zuzenbide osagarri izango dira beti.

### Bigarren xedapen gehigarria.

Bat. Ekonomia-itun honetan aldaketaren bat egin behar bada, bera onesteko erabilitako prozedura berari jarraitu beharko zaio.

Bi. Baldin eta Estatuaren tributuei buruzko ordenamendu juridikoan erreformaren bat egitenbada eta erreforma horrek tributuak ituntzeari eragiten badio, edo araugintzarako eskumenen banaketa aldatzen bada eta aldaketa horrek zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio, edo tributu-figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada, bi administrazioek, adostasunez, ordenamendu horretan izandako aldaketetara egokituko dute ekonomia-itun hau.

Inoiz Ekonomia Ituna era horretara egokitzen bada, egokitzapenaren finantza-ondoreak zehatz azaldu beharko dira.

### Hirugarren xedapen gehigarria.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-aldundiek 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikuluan aitortu zitzaizkien ekonomia- eta administrazio-arloko ahalmenak izango dituzte, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen den foru-araubidea eguneratzeko prozesua dela-eta indarrean daudenez. Dena dela, kontuan izan beharko dira Konstituzioaren 149.1.18. artikuluan aipatzen diren oinarriak ere.

### Laugarren xedapen gehigarria.

Euskadin egin beharreko inbertsio batzuk elkarrekin finantzatzea erabaki dezakete Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak, era horretan jardutea komenigarria dela erakusten badute honako arrazoi hauek: inbertsioaren zenbatekoak, balio estrategikoak, interes orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste lurralde batzuei ere eragiteak, edo beste arrazoi berezi batzuk egoteak.

Era berean, Euskadiko lurraldeaz kanpoko beste leku batzuetan egin beharreko inbertsioetan Euskadik parte hartzea ere erabaki dezakete Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak,aurreko paragrafoan aipatzen diren arrazoi berak gertatzen badira.

Egoera batean zein bestean, diru-ekarpen horiek kupoan izango duten eragina kasu bakoitzean hitzartuko dena izango da.

### Bosgarren xedapen gehigarria.

Apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez indargabetua.

**Seigarren xedapen gehigarria.**

Ekonomia-itun honen 14., 15., 19. eta 27. artikuluetan aipatutako eragiketen zenbatekoa bost urtean behin edo sarriago eguneratuko da, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartuko dituen erabakien bidez.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengo xedapen iragankorra.**

Itun honetako 14., 15. 19. eta 29.6 artikuluetan txertatu diren aldaketak aplikatuko dira Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko uztailaren 19ko Erabakiaren bitartez onartutako itunaren aldaketa onesten duen Legea indarrean jartzen denetik aurrera hasten diren zergaldietan edo likidazio-aldietan, zerga motaren arabera.

Era berean, ekonomia-itun honetako 29.9 eta 47.ter artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko uztailaren 19ko Erabakiaren bitartez onartutako itunaren aldaketa onesten duen Legea indarrean jartzen denetik aurrera hasten diren zergaldiei soil-soilik dagozkien erregularizazioetan.

**Bigarren xedapen iragankorra.**

Ekonomia-itun hau indarrean jarri baino lehen sortu diren tributuak direla-eta, horien sortzapenaren unean indarrean egon ziren lotuneak erabiliko dira haiek arautzeko.

Arau bera erabiliko da atxikipenekin, konturako sarrerekin eta ordainketa zatikatuekin ere, atxikipena, konturako sarrera edo ordainketa zatikatuak egiteko betebeharra ere ekonomia-itun hau indarrean jarri aurretik sortua den kasuetan.

Ekonomia-itun hau indarrean jartzen denean burutu gabe egongo diren prozeduretan, eurakhasi zirenean indarrean zegoen araudia erabiliko da.

**Hirugarren xedapen iragankorra.**

Aurreko xedapen iragankorrean esandakoa gorabehera, ekonomia-itun honen III. kapituluan aipatu diren organoek erabakiko dituzte, itunean ezarri zaizkien prozeduren eta eskumenen arabera, ekonomia-ituna indarrean jartzen denean bi administrazioek konpondu gabe izan litzaketen auzi guztiak.

**Laugarren xedapen iragankorra.**

Ogasun Ministerioaren eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkariek osatutako batzorde misto parekide batek zehaztuko du zenbateko konpentsazioa hartu behar duen foru-aldundi horrek Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko eskumenak garatzen eta zerbitzuak egiten diharduen bitartean, araubide erkideko probintzietan Estatuak egiten baititu lan horiek. Halaber, batzorde horrek arauak ezarriko ditu konpentsazio hori urtero berrikus dadin, Euskal Autonomia Erkidegoari eskumenak eskualdatzeko egutegian oinarrituta.

Konpentsazioa zehaztu eta aplikatuko bada ere, horrek ez du eraginik izango kupoa zehazteari buruz itun honetan ezarri diren arauetan. Konpentsazioa, nolanahi ere, Autonomia Estatutuaren 41.Bi.e) artikuluaren arabera Arabari dagozkion kupoen zenbatekoak murriztuz gauzatuko da.

**Bosgarren xedapen iragankorra.**

Ekonomia-itun hau indarrean jarri aurretik eratutako ekonomia-intereseko taldeei eta aldi baterako enpresa-elkarteei aplikatu beharreko tributu-araubidea Euskadiri dagokion bera izango da, baldin eta Euskadiko lurralde-eremua gainditzen ez badute.

**Seigarren xedapen iragankorra.**

Apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez indargabetua.

**Zazpigarren xedapen iragankorra.**

Harik eta tabako-laboreen fabrikazioaren eta salerosketaren egungo araubidea aldatu arte, tabako-laboreen gaineko fabrikazio-zerga berezia dela-eta egin behar den doikuntza, ekonomia-itun honen 54. artikuluan dagoena, eragiketa matematiko honen bidez kalkulatukoda:

$RF_{PV} = RR_{PV} + c' * RR_{TC}$ [(1 - c') * $RR_{PV}$]

Non:

$RF_{PV}$ = urteko azken zerga-bilketa Euskadin, tabako-laboreak direla-eta.

$RR_{PV}$ = urteko benetako zerga-bilketa Euskadin, tabako-laboreak direla-eta.

$RR_{TC}$ = urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean, tabako-laboreak direla-eta.

c’ = Euskadiko tabako- eta tinbre-saltokiei hornitutako tabako-laboreak / Zerga aplikagarria den lurraldeko tabako- eta tinbre-saltokiei hornitutako tabako-laboreak.

**Zortzigarren xedapen iragankorra.**

Kontseiluak 2003ko urriaren 27an emandako 2003/96/EE Zuzentarauak agindutakoari jarraituz, horren bitartez energia-produktuen eta elektrizitatearen gaineko Europar Batasuneko zergapetze-araubidea berregituratzen baita, gasolioari helburu profesionaletarako erregai modura erabiltzen denean tasa murriztu berezia ezarri behar zaiola-eta hidrokarburoen gaineko zergari lotutako itzulketa partzialak dagokion administrazioak egin behar ditu, hau da, itzulketen onuradunak egoitza fiskala non duen, hango administrazioak.

**Bederatzigarren xedapen iragankorra.**

Nekazaritza-arloko ekoizpenean izandako inputen kostu-igoera arintzeko neurriak aplikatu behar direla-eta nekazariei eta abeltzainei eman behar zaizkien hidrokarburoen gaineko zergari zergaren aparteko itzulketak, itzulketa-onuradunaren egoitza fiskalari dagokion administrazioak egin behar ditu.

**Hamargarren xedapen iragankorra.**

2021eko urtarrilaren 16tik aurrera ondorioak izateko ituntzen diren zerga berrien araubide iragankorrak honako arau hauek bete beharko ditu:

Lehenengoa. Lurralde historikoak Estatuko Ogasun Publikoaren zerga gaietako eskubide eta betebeharretan subrogatuko dira xedapen honetan aipatzen diren zergak kudeatzeari, ikuskatzeari, berrikusteari eta biltzeari dagokienez.

Bigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzen duen Legea indarrean sartu zen eguna baino lehen (zerga berrien ituna txertatuta) likidatutako eta zergapetutako zenbatekoak, xedapenean aipatzen diren zergak itunduta Foru Aldundien eskumenekoak izango liratekeen egoerei badagozkie, eta baldin eta egun horretatik aurrera sartuko balira, Foru Aldundiei dagozkie osorik.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzen duen Legea indarrean sartu zen eguna baino lehen (zerga berrien ituna txertatuta) sortutako zenbatekoak eta ikuskapen jardueren arabera egun horretatik aurrera likidatutakoak, xedapen honetan aipatutako zergen irizpideak eta konexio puntuak aplikatuta banatuko dira.

Laugarrena. Bidezkoa denean, egindako likidazioei dagozkien itzulketak —edo Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzen duen Legea indarrean sartu zen eguna baino lehen (zerga berrien ituna txertatuta) egin ahal izan direnak— sortzapenaren datan eskuduna zen administrazioak egingo ditu, xedapen honetan aipatutako zergen irizpideekin eta konexio puntuekin bat etorriz.

Bosgarrena. Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek ematen dituzten administrazio egintzen aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa egin ahalko da, lurralde horietako organo eskudunen aurrean. Aitzitik, Estatuko Administrazioak ematen dituenen aurka, edozein datatan eman direla ere, estatuko organo eskudunen aurrean erreklamatu behar da.

Hala ere, aurreko arauetan dauden arauekin bat etorriz hartzekoduna den administrazioari eratxikiko zaio diru-sarrera egokia.

Seigarrena. Zergetako urraketak kalifikatzeko ondorioetarako, eta kasu bakoitzean urraketa bakoitzari dagozkion zehapenak kalifikatzeko ondorioetarako, xedapen honetan aipatzen diren zergen ituntzea indarrean sartu baino lehen Estatuko Ogasun Publikoan gaiari buruz dauden aurrekariek balio eta eraginkortasun osoak izango dituzte.

Zazpigarrena. Xedapen iragankor honetako zergen ituntzea indarrean sartzeak ez ditu kaltetuko data hori baino lehen emandako legeen arabera zergadunek eskuratzen dituzten eskubideak.

**Hamaikagarren xedapen iragankorra.**

Tributu itundu berrien araubide iragankorra, ondorioak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituena, ondorengo arauei lotuta egongo da:

Lehenengoa. Lurralde historikoak subrogatu egingo dira Estatuko Ogasun Publikoak tributuen arloan dituen eskubide eta betebeharretan, xedapen honek aipatutako tributuen kudeaketari, ikuskapenari, berrikuspenari eta bilketari dagokienez.

Bigarrena. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen likidatutako eta hartutako kopuruak, hain zuzen, xedapen honetan aipatzen diren tributuak itunduta egon izan balira Euskadirenak izango ziratekeen egoerei dagozkien kopuruak, 2013ko urtarrilaren 1aren ostean ordaintzen badira, foru-aldundienak izango dira oso-osorik.

Hirugarrena. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako kopuruak eta ikuskapen-jarduketengatik epe horretatik aurrera likidatutakoak, xedapen honetako irizpideak eta tributuen lotuneak aplikatuta banatuko dira.

Laugarrena. Hala dagokionean, 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako, edo egin beharrekoak ziren, likidazioak itzultzea sortzapen-egunean horretarako eskudun izan zen administrazioaren eginkizuna izango da, xedapen honetan irizpideez eta tributuen lotuneez esaten dena kontuan izanda.

Bostgarrena. Lurralde historikoetan eskumena duten organoek emandako administrazio-egintzen aurka bide ekonomiko-administratiboan jarri ahal izango da errekurtsoa, lurralde horietan eskumena duten organoen aurrean. Estatuko Administrazioak emandakoak, aldiz, Estatuko organo eskudunen aurrean erreklamatu ahal izango dira, haien data edozein izanik ere.

Nolanahi ere, horrelakoei dagokien sarrera aurreko erregeletan jasotako arauen arabera hartzekoduna den administrazioari egotziko zaio.

Seigarrena. Tributu-arloko arau-hausteak eta haiei kasu bakoitzean dagokien zehapena kalifikatzeko, balio eta eraginkortasun osoa izango dute kasu bakoitza dela-eta Estatuko Ogasun Publikoan jasotako aurrekariek, xedapen honek aipatutako tributuen ituna indarrean jarri baino lehen.

Zazpigarrena. Xedapen iragankor honetan aipatzen den tributuen ituna indarrean jartzeak ez die kalterik egingo data horren aurretik emandako legeen ondorioz zergadunek eskuratutako eskubideei.

### Hamabigarren xedapen iragankorra.

Estatuko Administrazioak egin beharko du ordainarazpena kirol eta ongintzako elkarrekiko apustuak eta Estatuko elkarrekiko hipika-apustuak kargatzen dituen joko-jardueren gaineko zerga, betiere horrelakoak Estatuko Loterien eta Apustuen Estatuko Sozietateak merkaturatzen baditu, eta Euskadiri dagokion finantza-konpentsazioa baztertu gabe. Estatuko Loterien eta Apustuen Estatuko Sozietateak Euskadiri egozten zaizkion jokatutako zenbatekoen urteko informazio-aitorpenak aurkeztuko ditu Ekonomia Itunaren 36.Bi artikulua betez.

### Hamahirugarren xedapen iragankorra.

Ekonomia Itunaren 34. artikulua, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako jatorrizko idazketan, indarrean egongo da 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbait hidrokarbururen txikizkako salmenten gaineko zergarekin lotuta preskribatu gabe dauden ekitaldiei dagokienez.

## AZKEN XEDAPENA

### Azken xedapen bakarra

Tributuei aplikatu behar zaizkien Ekonomia Ituneko arauak indargabetu edo aldatzeko aukera badago ere, horrek ez du aldaraziko administrazioek duten eskubidea lehenago sortutako zorrak aurretik zeuden lotuneen arabera eskatzeko.